

GUaixe.net



Euskaraz hasiko da Irurtzungo antzerki zikloa



Kultura >> 14

Mikel Reparazek astelehenean Saharako bidea hartuko du. Bere kantuarekin lehiaketa bat irabazi du eta Tindufen abestuko du



Kultura >> 15

Ikasleen %20k ez du euskara menderatuko

Hiru hezkuntza mailetan, HH, LH eta DBHa, ikasleen %80 D ereduari matrikulatua dago. %16 An eta %4 Bn

Hezkuntza eta soziolinguistikako adituek nabarmendu dute A eta B ereduak ez dutela euskara ikastea bermatzen >>5

Ezabaketagatik EHEko kideek jarritako helegitea atzera, eta, zigor berria

>>6

Ibaiko lanak, Uharteko Udalaren inbertsioa

>>5

Etxarriko ferietan artisauak eta gehiago

>>7

Bigarren eskuko azoka igandean Irurtzunen

>>8



Fran Balda eta Jon Garai, biak atxilotuak, prentsaurreko batean. Balda aske utzi zuten atzo. ARTXIBOA

Herriraren jarduna eteteko atxilotaketak

>>3



Autoen lehia ikusgarria bihar Urbasako Igoeran

>>11



Etxarriko Mendira Joan - Etorria, 38.a, igandean

>>10

Bertsolari Txapelketa Nagusia 2013

KANPORAKETA ALTSASU

Burunda pilotalekua

Urriak 13, 17:30ean

Kanporaketako SARRERA AURKEZTU eta menuan...

deskontua

ARKANGOA 948 562 134 19,55€

BILTOKI 948 467 876 21,25€

KAIXO 948 469 124 Menua

Konbinatuak Bokatik

Prezio hauetan deskontuak aplikatuta dago.

ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.



Jarraitu
gaitzazu

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

LEHALSA

Leiho-Isolatzaileak • Alumninioa-P.V.C-Mistoak

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com



Aritz Larunbe

Maite zaitugun guztion
partez, ZORIONAK
PITTU!!!



Izaro

ZORIONAK politta!! Muxu
handi bat eta oso ongi pasa
zure 4. urtebetetzean!!
Ama, aita, lehengusuak eta
familia guztiaren partez.



Naiara Goikoetxea Arteta
ZORIONAK preziosa!!
Eneko, Alfredo eta Gazi.



Olatz Galartza
Lezea

ZORIONAK Olatz!! 9 urte
bete dituzu jada!! Uf, hau
mordoa!! Muxu potolo bat
familia guztiaren partez.
Segi horrela, zintzo, zintzo.
Muxuak....



Ekhi Igeltz

ZORIONAK etxeko
txikienari. Segi beti be-
zain alaia eta bihurria.
Mila muxu, ama, aita
eta Izaireren partez.



Oihan Gastaminza
Betelu

ZORIONAK potxolo, 2
urte!! Etxeko guztien
partez pa, pa eta pa!

urriak

4-10

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Dida eta Segismundo Toxicomano. Lastailaren 4an, ostiralean, 23:00etan Etxarriko gaztetxean.

Entre2siones eta afrikar perkusioa. Lastailaren 6an, igandean, 12:00etan Irurtzongo plazan. Bigarren eskuko azokan.

Kantu gregorianoa. Lastailaren 6an, igandean, 12:00etan Aralarko santutegian. **Gaudeamus** abesbatza.

Antzerkia

Lingua nabajorum. Lastailaren 4an, ostiralean, 21:30ean Irurtzongo kultur etxean. **Tartean Teatro.**

Dokumentalak

Corazones rojos. Lastailaren 8an, asteartean, 19:00etan Altsasuko lortiaiko kultur gunean. **Aurretik Emilio Majuelo historialariaren hitzaldia.**

Zinema

Ahora me ves. Lastailaren 4an, ostiralean, 22:00etan eta lastailaren 6an, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

Monstruos university. Lastailaren 6an, domekan, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Bideo emanaldia

El segundo desembarco. Multinacionales españolas en America Latina. Lastailaren 4an, ostiralean, 19:00etan Iturmendiko Ximona gaztetxean. **Askapena.**

Apaga y vamonos. Lastailaren 8an, asteartean, 19:00etan Etxarri Aranazko Leku Ona tabernan. **Askapena.**

Mendi irteera

Irubelakaskoa. Lastailaren 6an, domekan. Altsasuko Mendigoizaleak.

Txirrindula irteerak

Alaitzko mendizerra. Lastailaren 6an, domekan, 7:30ean Altsasuko Burunda txirrindulari taldearen mendi bizikletakoen egoitzatik. **35 km.**

Erakusketak

Munstroak Izenik Gabe. Hondakinak biziberritu



dituen erakusketa. Lastailaren 12ra arte, astelehenera ostiralean, 18:30etik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean.

Hitzaldiak

Nafarroa diktaduran, 1936-1975. Lastailaren 8an, asteartean, 20:00etan Uharte Arakilgo udaletxean. **Hizlariak: Patxi Abasolo.**

Nafarroaren katastrofea: estatu kolpea eta errepresioa 1936an. Lastailaren 8an, asteartean, 19:00etan Altsasuko lortiaiko kultur gunean. **Hizlaria: Emilio Majuelo.**

Guda zibila, zinema eta propaganda. Lastailaren 9an, asteazkenean, 19:00etan Altsasuko lortiaiko kultur gunean. **Hizlaria: Juan Madariaga.** Garaiko grabazioen proiektzioekin lagunduta.

Erljioa eta errepublikaren aurkako mobilizazioa Nafarroan, 1931-1936. Lastailaren 10ean, ostegunean, 19:00etan Altsasuko lortiaiko kultur gunean. **Hizlaria: Javier Dronda.** Con cristo o contra cristo liburuaren aurkezpena.

Bestelakoak

Zorri azoka, merkatu soziala. Lastailaren 4an, ostiralean, 17:00etatik 21:00etara Etxarri Aranazko estalopean.

Bigarren eskuko azoka. Lastailaren 6an, igandean, 10:00etatik 14:00etara Irurtzongo foru plazan. Eguraldia laguntzen ez badu frontoian. **Itxipuru.**

Deialdiak

Hipotekek kaltetutakoen Plataforma. Lastailaren 4an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxeko lehen solairuko 1. gelan, bilera.

Eman argia konpon bideari. Lastailaren 4an, ostiralean, 19:30ean Bakaikuko erdiko iturrian. Herriaren kontrako sarekada salatzeke

Euskal Presoak Euskal Herrira! Lastailaren 4an, ostiralean, 20:00etan, Irurtzongo, Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Herrira ekarriko ditugu. Lastailaren 5ean, larunbatean, 19:00etan Etxarri Aranazko plazan. Giza katea.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Lastailaren 6an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Sakanako Langabetuen Asanblada. Lastailaren 7an, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

Pentsio duinak, murrizketarik gabe. Lastailaren 8an, asteartean, 11:00etan Irurtzongo azokan. **Sasoia.**

Herri galdeketeri buruzko batzarra. Lastailaren 10ean, ostegunean, 20:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean. **Etxarri 2012+1 ekimena.**

edo uhinbak aplikazioaren bitartez www.guaixe.net

Ostiralero 9:30etik 10:30era SAIOA

Asteburuko agenda

Asteko errepasoa: albisteak, kirolak, Pello Reparaz, Tomas Mauleon...

Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

Piztu irratia!

AGINDUTAKO ITXIERAK: Twitterreko 32 profil, Facebook-eko 125 eta 38 web orri ixteko agindu dute, baita Herriraren diru-kontuak blokeatzea ere.

ezkaatza >>

SAKANA

Fran Balda aske

Atzo 15:00ak aldera utzi zuen Espainiako Auzitegi Nazionala Fran Balda Arañak. Eloy Velasco epailearen aurrean leporatzen zaizkion delitu guztiak ukatu egin zituen arbizuarrak. Baita berarekin batera atxilotutako 17ek ere. Epaileak karguak mantendu ditu: “talde terroristako kide izatea, goratzea eta finantzatzea”. Aske utzi zuen, hainbat baldintzekin: hamabostero joan beharko dute sinatzera, Espainiatik ezingo dute atera, pasaporteak kendu die, eta presoekin zerikusia duten ekitaldietan ezingo dute parte hartu. Miguel Angel Carballo fiskalak baldintzarik gabeko espetxe zigorra eskatu zuen.

Epaileak Herrira mugimenduaren jarduera osoa debekatu du. Haren egoitzak bi urterako ixtea ere agindu du Velascok. Hainbat twitter kontu eta web orri itxi dira epailearen aginduz, baita banku kontuak blokeatu ere.

Ziegan

Baldarekin hitz egiteko aukera izan genuen atzo. Arbizuarrak jakinarazi zigunez astelehenean, 10:10 aldera atxilotu zuten Arribe eta Lizartza artean. “Bost auto gainera etorri zitzaizkidan eta 15-20 bat Guardia Civil atera ziren. Inguruko industrialde batera eraman ninduten eta han miaketa egin zuten”. Hasieran esposak gogor lotu zizkieten baina gerora hura ere lasatu zioten. Zuzenean Iruñeko komandatziaira eraman zuten eta handik Madrilera.

Bera izan zen Madrilgo Guardia



Astelehenean 300 bat pertsona bildu ziren Arbizuko plazan.

Civilaren ziegan sartu zuten lehenak. “Denboraguztiaz argi handibat piztuta zegoen eta ez nekien noiz zeneguna eta noiz gaua. Ziegan sartzen zirenean kaputxarekin sartzen ziren, tentetu eta paretaren kontrajarri beharranuen. Garraxiak... Beste modu bat da, baina eragiten dute”. Guardia Civilen jarrera batzuk berdin segitzen duela azaldu zigun arbizuarrak. Hartu beharreko botikak hartu ditu atxiloaldian.

Poliki-poliki inguruko ziegak betetzen zirela ohartzen joan zen. Atxilotutako 18ak, bakoitza ziega batean zegoela konturatu ziren. “Kide gehiago izatean eta tratua erabat gaiztoa ez izatean” lasaitu egin ziren.

Galdera

Orduan hasi zitzaizkien atxilotuei galderak sortzen, “Herrira-

ren harremana hain argia izatean zergatik jo dute?” Atzo arratsaldean, beste batzuk jarritako fidantzetarako dirua lortzeko modua aztertzen ari zirenean eta epailearen aurretik lau atxilotu pasatzeko zain zegoela Baldak esan zigun garbi dagoela sarekada Herriraren jarduna eteteko egin dela. “Euskal Herriko gizartearen zentralizazioa bidea ematen dio Herrirak egiten duen lanak. Euskal presoek eskubideen alde dago gizartea. Sobra ere, gizartearen mobilizazioak eta kontzientziazteak mina egiten die”.

Euskal herritarren gehiengoak presoek eskubideak murriztea ez duela begi onez ikusten eta sufrikario guztiak bukatu eta presoak lehenbailehen etxean nahi dituztela nabarmendu zuen. Azkenik, atxilotuak egon diren egune-

Herriraren kontrako sarekada

Herrira mugimenduko 18 kide atxilotu zituen astelehen goizean Guardia Civilak. Horien artean Fran Balda Araña dago, Herrirako Nafarroako arduradunetako bat delakoan atxilotua. Espainiako Auzitegi Nazionaleko Eloy Velasco epaileak agindu zuen Herriraren kontrako operazioa.

Atxilotu zituztenetik Guardia Civilaren esku egon dira, komunikatuta, eta haien konfiantzazko abokatuarekin Guardia Civilen aurrean ez deklaratzeko eskubideari heldu zioten denek.

Egozten dietena

Herrira mugimenduko kide izateagatik atxilotutako 18 kideei “erakunde terroristako kide” izatea eta “erakunde armatua finantzatzea” egozten die epaileak. Haren irudiko legez kanporatutako Amnistiaren Aldeko Batzordeak eta Askatasunaren “oinordeko” da Herrira. Gainera, “terrorismoa goratzea” leporatzen die kaleratutako euskal presoengiko etorriak antolatzeagatik.

Salaketa horietarako Guardia Civilaren probak dira atxilotutakoek emandako prentsaurrekoak, parte hartutako ekitaldi publiko, aurkezpen edo manifestazioak dira. Guztiak legezkoak eta legezatuak. Miguel Angel Carballo fiskalak, bestalde, Herrira mugimenduaren jarduerak etetea eskatu du.

+www.guaixe.net

tan mobilizatu diren guztiei eta familiei eskerrak eman zizkien Baldak.

Deialdiak

Ostiralean, 12:00etatik 12:30era, lantokien eta udalteen aurreko aldean, zortzi sindikatuk deituta.

Ostiralean, 20:00etatik 21:00etara, herrietako plazetan elkarretaratzeak.

Larunbatean, 12:00etatik 13:00etara, herrietako plazetan elkarretaratzeak.

Larunbatean, 17:30ean, Bilbon manifestazioa.

Larunbatean, 19:00etan, Etxarri Aranazko plazan giza-katea.

Konponbide eta bakearen aurkako operazioa

Herrira mugimenduaren kontrako sarekada “Euskal Herri osoaren kontrako operazioa da”. Halaxe azaldu zuten astelehenean egindako elkarretaratzeetan. Orduan nabarmendu zuten, “presoek eskubideen errespetuaren aldeko euskal jendartearen gehiengo zabalaren aldarrikapena kaletik ateratzeko saiakera bat da polizia operazioa”. Nabarmendu zuten, “estatu espainiarrak euskal presoek dagozkien eskubideen aldarria kriminalizatu eta desagerrarazi nahi du”.

Egindako irakurketan nabarmendu zuten, “estatu espainiarrak konponbide prozesua blokeatu eta zapuzteko presoek auzia

erabiltzen du. Bakearen aurka erabiltzen du estatu espainiarrak euskal presoek ezartzen dien espetxe politika kriminala”.

Herri bezala erantzun zabal bezain irmoa eman beharra nabarmendu zuten. Horregatik deitutako mobilizazio eta ekimen guztietan “masiboki” parte hartzeko deia” luzatu zen. Bestalde, “presoek eskubideen aldeko aldarrikapena kaletik atera eta kriminalizatu nahi duten honetan, kaleak, etxeak eta txoko guztiak Euskal preso eta iheslariak etxera lelodun txartelekina eta banderolekin betetzeko” deia egin zuten.

Herrira mugimenduaren kontra Guardia Civilak egindako sare-

kada salatzeko, atxiloketek irauten duten bitartean, Arbizun egunero kontzentrazioak egin dira. Astelehenean bertan Altsasun, bestalde, 19 pertsonako taldeetan elkartuta, herriko bost puntutan behintzat salatu zuten Herriraren kontrako operazioa eta atxilotuen askatasuna eskatu zuten.

Sindikatuak

ELA, LAB, ESK, EILAS, EHNE, Hiru, CGT eta CNT sindikatuen iritziz sarekada hori “Euskal Herriaren kontrako eraso da” eta bere helburua “konponbiderako prozesua baldintzatzea, oztopatzea da”. Horregatik, langileei dei egin diete “instituzioek ekartzen

ez dituzten irtenbideak eskatzera kalera ateratzeko”. Sindikatuko kideen iritziz “herriak hartu behar du oztopoei aurre egin eta konponbidea bulkatzeko protagonismoa”. Horregatik gaurko elkarretartze deialdia egin dute.



Non erabili

IRUBIDE JATETXEA

ALTSASU
Gosaria (kafea+pintxo edo bolloa+laranja zuku naturala) 2,50€.

SAKANA OPTIKA

ALTSASU
%15eko deskontua betaurrekoen armazoiari eta kristaletan, %10ekoa gainontze-koetan.

NUEVA IMAGEN

ALTSASU
%10eko deskontua edozein zerbitzutan, diruz ordainduz gero.

ARRUAZUKO OSTATUA

ARRUAZU
Asteburuko menuarekin, kafea edo txupittoa doan.

LOGURE

ALTSASU
Espazioaren aldaketa: %50eko deskontua.

MARIA LUISA

ALTSASU
100 €tik gorako erosketetan, 10€tako deskontu-bale bat hurrengoan erabiltzeko.

NEREA ILEAPAINDEGIA

LAKUNTZA
30 €tik gora, maskarilarekin larruazaleko masajea. 50 €tik gora, anpoila hidratatzaile bat.

MARTXUETA

IRURTZUN
% 5eko irakurketako liburutetan.

MENDILORE

BAKAIKU
30€ko erosketarengatik, landarea doan, % 5ko deskontua lorontzietan.

LEKU ONA OSTATUA

ALTSASU
Eguneko menuan, kafea doan. Bestelako menuetan, %10eko deskontua.

www.guaixe.net-en zerrenda osoa ikusgai



Zoila Berastegi

Oharra

astekoa

barrutik kanpora

Sakana

Orain da momentua. Berriro ere oroimenak ihes egin aurretik, zугanantz iritsi nahi dut. Une batetik bestera basamortuan geratuko naiz, kaxa huts batean neure oihartzunak bakarrik entzungo ditudalarik. Inorez dut entzungo ezezagutuko, edo agian, nahaste borrhaste baten menpean mintzatuko naiz, txorakeria handienetik handiagora. Nork daki. Horregatik momentu hau aprobetxatunahi dut, hurrengoan oiz helduko den ez dakidalako, ezta

helduko denik ere. Ziurtasun bakarradaukatorainaren hari hauskor honetan balantzaka: nor naizen. Barre egingo duzu, ohikoa duzun irribarre gozo bezain xamur horrekin, baina ez dakizu zenbaterainokoa den nire gozamina oinak lurrean sentitzen ditudanean eta bai oinak, nola lurra neureak direla dakidanean. Ni naiz. Zu zara. Gu gara. Hori da nire adimenak argiztatu didan bidea. Nire oinetatik, zure

laguntzaz, pausoz pauso, gure lurrera. Garai batean egiten genuen bezala, elkarrekin. Oroitzen duzu? Ahaztezinak dirudite ekaitza gainean izanik olatuek harkaitzetan egiten zuten talkaz liluratuak geratzen ginen arratsalde haiek. Hain argi ikus eta senti dezaket guztia momentu honetan... historia nire zainetan barna eta nire istorioa historiaren orrietan barna. Askatasun ametsak mani-fa eta gaupasetan. Errealitateak

behartutako lurreratze bortitzak. Greba orokorrak eta elkartasuna. Ateak. Ideia zaharrak gauzatzeko erabaki berriak. Ate itxiak. Auzolana. Ate itxien kolpeak. Amodioa ama hizkuntzan. Ate itxien kolpe bortitza. Sarraila. Garraxiak. Mina. Banoa. Banaramate. Badoa nire memoria. Badoa ihesi. Ez dezala ihes egin. Heldu. Gorde nire memoria zure buruan, inork lapurtu ez dezan. Bihar ere jakin dezadan. Jakin dezagun.

Zer da SAKANA? Wikipediak dioenez, SAKANA Nafarroako eskualde bat da eta 3 bailaratan banatuta dago, Arakil, Ergoiena eta Burunda. Baina zer esanahi du adibidez, “SAKANA” hitzak japonieraz? Berriz ere Wikipediara jotzen dut eta “SAKANA edo SHUKO”, edari alkohol dunekin ematen den janari osagarria da. Baina, aldiz, zer da “SAKANA” guretzat? BAKARRA dela. “SAKANAK” badu mezua, badauka esanahia, badauka bizia. Badauzka sentimenduak, badauzka ametsak, badauzka indarrak, badauzka gabeziak, badauzka mehatxuak, badauzka aukerak. SAKANAK badauka. Zer izango ginen gu, Sakandarrok, Sakana gabe? Ez gara Olazti, Iturmendi, Lakuntza, Lizarrraga, Irañeta, Egiarreta edota Irurtzun besterik. Denok Sakana gara. Eta denok batera lan eginda eta indar guztiak talde berean bilduta, ez ahal dugu Sakana indartsu bat errazago lortuko? Gaur egun, mundu globalizatu honetan, “bakarrik” hitza zaharkitzen ari da. Bakarrik ezere egitea ezinezkoa da, ezagutza eta esperientzia edonork du. Beraz, utz diezaiogun gauzak bakarka egiteari eta taldean lan egin dezagun.

Helburu nagusi bat eduki beharko genuke guztiok; gaur egun eta etorkizunera begira, Sakanan edonork bizitzeko eta lan egiteko aukera izatea. Eta nola lortuko dugu hori? Dударik ez izan bakarka lan eginez ez dugula lortuko. Beraz, zein da Sakandar ororen egin beharra? Lehenik eta behin, pentsaera aldatzea; pentsamendu indibidualetik, asmo kolektibora. Herri guztiak berdinak gara, denok gara Sakandarrak eta argi eduki behar dugu, 20.000 buruk, 1-ek baino gehiago pentsatu eta lan egiten dutela. Horregatik, Sakantzen Sareak eskualde guztiaren onura aurkitu nahi du. Eta beharrezkoa dugu Sakandarren pentsaera, lan kolektiboarekin bat eginda egotea. Beraz, goazen denok Sakanaren helburu kolektiboaren alde lan egitera eta jarrai dezagun orain arte bezala lan egiten. Lortuko dugu eta!

Sakantzen Sarea

hara zer dien

Berriro klasera

Guraso guztiek beraien umeak klasera gustura eta interesarekin joatea nahi izango lukete. Eta umeek etxean jasotzen eta ikusten dutenak eragina izan dezake-elapentsatzen dugulako luzatzen dugu orain testu hau: - Umeek beraiengan gure interesanabari behar dute. Zer ikasten ari diren, gustatzen zaien hala ez, irakasleen arteko ezberdintasunak, ikasgai errazanak edo zailenak zeintzuk diren.... Umearen arabera galdera zuzenak egitea agian ez da erraza, baina hitz egiterakoan esaten duenari arretajar-

tzeak lagunduko gaitu. - Denok dakigu egunero klase-ra joan beharrak alde txarrak dituela, baina baita alde oso onak ere, eta horiek azpimarratu beharko genituzke. Ikastea, gauza berriak ezagutzea edota lagunekin egotea izan daiteke horietako batzuk. Bestalde, gure ume-ei galdetu diezaikegu beraiek ikusten dituzten alde onak guk zeintzuk diren jakiteko. - Gure esperientzia kontatzea ona da. (...) Oraingo guraso guztiak egon gara noizbait ikastetxe batean. Zein zen gustuko genuen

ikasgaia, zer eta nola ikasten zen lehen, zeintzuk ziren gure ikas-kideak ... Gure umeek badakite ikasten genuela, baina ona da hortaz beraiekin hitz egitea, gure bizipena nolakoa izan zen kontatzea, eta beraiena ezberdina izanik ere, interesatzen zaigula erakustea. Oroitzapen onak eta txarrak izango ditugu, eta onak gehiago aipatzea interesgarria bada ere, ona da denak aipatzea. - Ikastetxeari buruzko interesa izan behar dugu, eta hau modu askotan egin daiteke: ikastetxean pasatzen duten denborari buruzko galderak eginez, bertan parte hartzen, behar duten materiala garaiz prestatzen, hau da, gure esku dagoen guztia eginez. (...). -Ikasten dutena etxean aplikatu behar da, eguneroko bizitzan.

Horretarako zer ikasten ari diren galdetu behar diegu. Irakurtzen ikasten ari direnean egunero hainbatetan irakurtzen dugula ohar-tarazteak lagunduko digu. erre-zeta bat, botika baten prospektu bat, etxean jasotako propaganda edo abisuak... Eguneroko bizitzan irakurtzen jakiteak laguntzen digula umei erakustea irakurtzen ikasteko estimulu bat da. Beti izan behar dugu kontuan zerbaiti buruz hitz egiten dugunean, zerbaitetan arreta jartzen dugunean, garrantzia ematen diogula horri, lupa bat jartzen diogula gainean, eta gure eskutan dago zertan jarri nahi dugun garrantzia, zertaz hitz egiten dugun eta nola. **Gizarte Zerbitzuak** Osorik: www.guaixe.net-en

gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunak EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun

guztiak LABURTU egingen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko

hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien

erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foruen plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.net edo 948 564 275 telefonoa.**

Euskaraz bizi nahiari zigorrik ez!

Itziar Claver eta Haizea Ramirez de Alda (Altsasuko Euskal Herrian Euskaraz)

Euskarak menpeko izaera politiko eta soziala du bere lurralde osoan eta horren adierazleetako bat Euskal Herriko paisaia linguistikoa dugu. (...) Egun, ez zaigu oso arrotza egiten espainola zein frantsesa edonon ikusi edota entzutea. Baina horiek al dira gure hizkuntzak? (...) Guk argi dugu; ez dugu euskararik gabeko Euskal Herririk nahi eta horren alde

borrokan jarraituko dugu. Borroka horren baitan, 2011ko azaroan paisaia linguistikoko euskalduna aldarrikatzera atera eta EHEko bikide identifikatuak izan ginen. Foruzainekineuskaraz aritu ginen, baina beraiek ez zuten hori oso gustukoa izan eta horren harira isunak iristen hasi ziren; 300 euro euskaraz egiteagatik eta 6.000 seinaleak ezabatzeagatik. Lehenengoa, bertan behera geratuz eta bigarrena, ordaintzeko gureak ikusi genituen. Seinaleengatik 6.000 euro ordaintzeaz gain, iazko irailean epaiketara deituak izan ginen.

Altsasun aspalditik ezabatuak zeuden seinale guztiak guri leporatu eta azkenean honako kondena ezarri ziguten: bi seinaleren garbiketa kostuak ordaintzea eta bi eguneko lokalizazio iraunkorra. Helegitea jarrita, duela gutxi jakin dugu behin betiko epaia; helegitea atzera bota dute eta, aipatutakoaz gain, epaiketaren kostu guztiak ordaindu beharko ditugu. Duela bi urte hasitako prozesu hau ez da bukatu. Euskarazko paisaia linguistikoa aldarrikatzeagatik 6.000 euro ordaindu ditugu eta orain bigarren zigor bat jarri digute. “Delitu” beragatik bizigor

ordaindu ezin direnez, jadanik ordaindua duguna bueltatzeko beste epaiketa batera joko dugu. Euskaraz bizi nahi dugu, euskaraz bizitzen saiatzen gara eta horrek guztiak aipatutako ordaina dauka gaur egun. Hala ere, euskarak bizi dituen erasoak eta zapalkuntza salatzen jarraituko dugu. Euskal Herri euskaldun eta burujabe batean sinesten dugu eta, hori eraikitzeko bidean, gure hau-tua egina daukagu; euskararen espaloian mantenduko gara. Euskaraz bizi nahiari zigorrik ez! EUSKARAZ BIZI!!! Osorik: www.guaixe.net-en

Guaixe

ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa • bierrik@guaixe.net
GUAIXE: Foru Plaza 23, 1. solairua, 31800 ALTSASU • 948 564 275 • 948 562 107 • guaixe@guaixe.net
PUBLIZITATEA: Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net • Maria Saez de Albeniz Bregaña • publizitatea@guaixe.net • 948 564 275

Erredakzio burua: Alfredo Alvaro Igoa
Erredakzioa: Maider Betelu Ganboa
Maketazioa: Ainhoa Etxeberria Pikabea
Laguntzaileak: Amaia Amilibia Salgado, Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena, Gixane Andueza Goikoetxea eta Erkuden Ruiz Barroso
Zuzentzailea: Garazi Barandalla
Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200 ale

LAGUNTZAILEAK:



SAKANA

Ikasleen %20k ez du euskara menderatuko

Ikasleen %80 D ereduan matrikulatua dago. %16 A ereduan eta %4 B ereduan

Ikasturte berrian Haur Hezkuntzan 696 ume hasi dira, aurreko ikasturtean baino 39 gutxiago. Hezkuntza ereduei dagokienez 5 ikasle berrietatik 4k D ereduan ekin diote ikasketei (%83,7; 583 ikasle, 33 gutxiago). Aurreko ikasturtearekin alderatuta %0,1 behera egin du D ereduko ikasleen matrikulazioak. Bi ikasturteetan segidan izan da jaitsiera, guztira %0,3.

Gainontzeko hezkuntza ereduei dagokienez, Haur Hezkuntzan A ereduak bere beherantzko joerarekin segitzen du. Ikasturte honetan %1,8 egin du behera, aurreneko aldiz 10 puntuko mugatik behera geldituz (%9,8; 68, 17 gutxiago). Ikasturte berrian gora egin duen hizkuntza eredu bakarra B ereduaren izan da, %1,9 (%6,5; 45, 11 gutxiago). Hezkuntza eta soziolinguistikako adituek behin baino gehiagotan nabarmendu dute A eta B ereduak ez dutela euskara ikastea bermatzen.

Guztira
Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak bildutako matrikulazio datuen arabera ibarrean 2.750 ikasle daude hiru hezkuntza zikloetan (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza), aurreko ikasturtean baino 17 gutxiago. Ikasleen %80ak, 2.200, D ereduan ikasten du. Haur Hezkuntzan aipatutako ikasle jaitsiera izan bada, gainontzeko bi zikloetan gora egin du D ereduak. LHn %0,2 gora eta aurreneko ikasleen

%80ra iritsiz (1.039, 44 ikasle gehiago). 8 ikasturtez gora egin ondoren inoiz baino DBHko ikasle gehiago daude D ereduan: %76,6 (%0,8 eta 21 ikasle gehiago). LHn inoizko mailarik apalenean dago A ereduak: %15 (%0,9 eta

6 ikasle gutxiago). B ereduak ere %0,3 egin du behera LHn (2 ikasle gutxiago) eta maila horretako ikasleriaren %5a hartzen du. DBHri dagokionez, A ereduak 0,8 egin du behera %23,4an kokatuz (ikasle bat gutxiago, 177 guztira).

Hizkuntza ereduaren bilakaera												
Ikasturtea	Haur Hezkuntza				Lehen Hezkuntza							
	A	B	D	%	A	B	D	%	A	B	D	%
97/98	126	24,1	-	-	396	75,9	365	32,5	-	-	758	64,2
01/02	111	20,9	-	-	420	79,1	320	28,8	-	-	792	61,3
06/07	98	17,5	16	2,9	445	79,6	272	23,3	14	1,2	883	75,5
11/12	79	11,7	29	4,3	568	84	200	15,8	89	7	974	77,1
12/13	85	11,6	34	4,6	616	83,8	201	15,9	67	5,3	995	78,8
13/14	68	9,8	45	6,5	583	83,7	195	15	65	5	1.039	80



Ikasleak ikastetxera bidean. ARTXIBOA

>> Uharte Arakil

Ibaiak ur emari handiagoa hartzeko lanean

Udalaren 1.10.408 euroko aurrekontutik lan horiek 237.536 euro eramanen dute

Agorrilean hasi ziren Coyser enpresako langileak ibai bazterretan lanean. Euria gogoz egiten duen bakoitzean ubeldeak gainezka egiten du eta Irañetarako errepidea, dermioko hainbat bide eta soro urpean uzten ditu. Kalte horiek eragozteko ibaiak ur emari handiago hartu eta horrela uholdeak eragozteko ari dira lanean.

Langileak presa eta Zerradoako bidearen artean ari dira lanean. Ibai bazterrak zabaltzeko eta inklinazioa emandiete (\\) horrela ibaiak ur kopuru handiago eraman ahal izateko. Horretarako bertan zegoen landaretza kendu behar izan dute, baina berriro



Ibai bazterrak zabaltzeko eta inklinazioa emateko lanak.

berez sortuko da. Lan horiekin batera uharka ere kendu dute. Hilaren erdialderako lanak despetituak egotea espero dute.

Duela bi urte Uharte Arakilgo Udalak herritarrei inkesta pasazien egin beharreko lanetan lehen-

tasunak marka zitzaten eta ibaiaren izan zen aurrea. Lanak egiteko Nafarroako Gobernuaren %70eko diru-laguntza zegoela ikusita horri heltzea erabaki zuten udalean. Zatiarik okerreanean lanean ari direla nabarmendu dute eta

heldu den urtean laguntza deialdirik balego beste zati batean lan berak egingen lituzketela aurreratu dute. Herrian premia asko dardela baina edozein lanei heltzeko diru-laguntzen menpe daudela azpimarratu dute udaletik. Ahal dena egiten segituko dute. Bitartean udal kontuak zorpetze mugaren azpitik eustea lortu dute.

Itxesi

Heldu den urtean Itxesi kaleko hegoaldean egingen dira lanak, futbol zelaiaren eta igerilekuen parean asfaltatu gabe dagoen zatian (180 bat metro). Uharte Arakilgo Udalak kaleko zati horren sareak eta zoladura berritzeko 132.366 euroko inbertsioa egingen du. Nafarroako Gobernuak 85.013 euroko diru-laguntza emanen dio.

Haur eskola

Egin beharreko lanak despeditu ondoren, Uharte Arakilgo Udalak Nafarroako Gobernuarekin hitzarmena sinatzeko zain dago. Aurkizatea espero du. Zortzi dira izena eman duten haurrak eta beste 3k ilbeltzean ematen dute. Horrela ezarritako 11 haurren ratioa beteta egonenda.

Aurtengo aurrekontuetan, bestalde, mendian eta basoan egiteko lanetarako 8.000 euro bideratu ditu Uharte Arakilgo Udalak. Beste 10.000 euro bideratu dira ur-biltegiko azpiegiturak berritzeko. Horiek aurtengo udal langileak egingen dituzte eta heldu den urtean segida ematea espero dute udalean.

PPSOE,

ETB

digitala

Nafarroan orain!

Berria erosi taldea

BUJANDA

okindegia

Tel.: 948 467 503

Kale Nagusia 31, OLAZTI

TXIKITXO

haurren arropa eta lentzeria

948 46 73 08

Ferialeku 2 - ALTSASU

berrioizarko udala

NAFARROAKO 24 UDAL ETA MANKOMUNITATETAN EUSKARA TEKNIKARI ARITZEKO KONTRATAZIO-ZERRENDA

Deialdiaren testua Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2013ko irailaren 27an.

Agiriak Berrioizarko Udaletxeko Erregistroan aurkeztu behar dira.

Azken eguna: 2013ko urriaren 17a.

BERRIOZARKO UDALA

SAKANA

Tokikom-en eta Euskadi Irratiaren arteko elkarlana hasi da

Astelehenera, 18:30etik 19:00etara, Mezularia saioak tokiko informazioaren berri emateko mahaingurua eskainiko du

Tokikom euskarazko tokiko hedabideen bateragunea da eta bertako kide dira Sakanako euskarazko hedabideak, Guaixe astekaria eta Belexe Irratia (FM 107,3). Tokikomeko presidente Mikel Irizarrek eta EITBko irratietako zuzendari-koordinatzaile Odile Kruzetak atzo lankidetzak hitzarmena izenpetu zuten.

Sinatutako agiriaren helburua euskal esparru komunikatiboa garatzea eta trinkotzea da, “euskararen normalizazioa bultzatuta, herritarren arteko bizikidetzari mesede egiten zaiolakoan”. Euskadi Irratiko eta Tokikomeko arduradunek adierazi dute, gainera, “interes komun horren alde lanikidetzan aritzeko borondatea dutela, aldian aldiko formula egokien



Tokikomeko eta Euskadi Irratiko arduradunak akordioa ixten. UTZITAKOA

nak bilatuko dituztelarik”.

Tokiko informazioa Mezularia irratsaioan

Elkarlan horretan aurreneko pausua Euskadi Irratiko arratsaldeetako Mezularia saioan izanen da. Albistegi horretan, Tokikomen biltzen diren hedabideetako kaze-

tariekin, astelehenero, herrietako informazioa jorratzen dute. Ainhoa Etxebestek gidatuta, eta astero txandakatuz, Tokikomeko kide diren hiru hedabideetako ordezkariak mahai-inguruan ariko dira tokiko informazioa aletuz. Sakanako berri heldu den astelehenera emanen da aurrenekoz.

>> Altsasu

Ezabaketengatik EHEko kideek jarritako helegitea atzera eta zigor berria

Delitu beragatik bitan zigortuak ezin direla izan salatu eta epaiketara joko dute

Hizkuntza paisaia euskalduna aldarrikatzeko 2011ko azaroan kalera aterazen Euskal Herrian Euskaraz (EHE). Bere bi kide identifikatuak izan ziren eta 16 seinale ezabatzea leporatu zieten. 6.000 euroko isuna ordaindu eta joan zen urteko irailan egindako epaiketari bi seinalerengatik kostuak ordaintzea eta bi eguneko lokalizazio iraunkorreko zigorra jarri zieten.

Helegitea jarri zuten, baina atzera bota eta epaiketaren kostu guztiak ordaintzera zigortu dituzte. EHEko kideen iritziz aurretik ordaindutako 6.000 euroei orain bigarren zigor hori gehitu zaie.



Epaiketara joko dutela adierazi zuten EHEko kideek. UTZITAKOA

Jakinarazi dutenez, “delitu” beragatik bi zigor ordaindu ezin direnez, “jadanik ordaindua duguna bueltatzeko beste epaiketa batera joko dugu”. EHEkoek adierazi dute-

nez, “Euskal Herri euskaldun eta burujabe batean sinesten dugu eta, hori eraikitze bidean, gure hautua egina daukagu; euskararen espaloian mantenduko gara”.

salatu eta “jatorrizko herrien borrorak eta bigarren eta egiazko independentzia baten alde borrokan ari diren herriak babesteko” deiak antolatu ditu. Egitaraua ikus agendan.

Cederna-Garalurren ikastaroek harrera ona izan dute

Cederna-Garalurrek bereziki langabezian dauden pertsonen zuzendutako ikastaro pare bat antolatu ditu: alfabetaze digitala, enplegua aktiboki bilatzeko. Altsasuko despeditu berriak eta astelehenera Olatzagutian hasiko da. 22 orduko iraupena izanen du eta 9:00etatik 13:30era izanen da.

Bestalde, Belardi taldearen eskareri erantzunez, Garalurrek Abel-

tzaintzako ekoizpenaren errentagarritasuna hobetu larreak ongi erabiliz ikastaroa antolatu du. Aste honetan elkarteari Arbizuko egoitzan lehen sektorean lan egiten duten 14 pertsona ari dira trebatzen.

ENPRESENDAKO

Berriki beren enpresa sortu dutenei, eta erakunde txikiak eta enpresen enpresaburuei eta zuzendari bideratutako ikastaroa ere antolatu du Garalurrek: sormena zure enpresan: berritu, bezeroa abiapuntu hartuta. Izena ematen dutenek enpresak merkatuaren aldaketara hobeto egokitze egin behar diren inguruan ariko dira, lan-taldeak, zerbitzuak, produktuak, bezeroa behatzeko moduak etengabe berrazmatuz.

MOTZEAN

Olatzagutiko Udalaren oihan enkantea

Olatzagutiko Udalak bi baso aprobetxamendu enkante publikoan salduko ditu, gutunazal itxien bidezko enkante publikoan. Aurreneko lotea Adarroiz, Lapurdiko zulo, Irue-rreka eta Zapardegi alderdietan, Altxania eta Basabeako mendietan dauden pagoak dira; 2.260 guztira, gutxi gorabehera 673 metro kubiko zur eta 4.878 egur egiten dutenak. Lote horren hasierako prezioa 103.794 eurokoa da (BEZa kanpo). Bigarren lotea, berriz, Irue-rreka eta Sarasako Lohi alderdietan daude, Altxania eta Basabeako mendietan ere. Pagoez osatuta daude, 1.870 zuhaitz, 360 metro kubiko zur eta 2.718 egur egiten dutenak. Hasierako prezioa 51.498 eurokoa da (BEZa kanpo). Interesatuak informazio gehiago Olatzagutiko udalaren webgunean www.olazti.com atarian dute. Proposamenak hilaren 15era arte egin daitezke.

Etxarriko Haurtxokoa, atzera ere, zabalduko da

Haurrak arratsaldeetan heldu baten zaintzapean egoteko tokia da Haurtxokoa. Izena emanda dauden umeengurasoek kudeatzen dute, bakoitzak bi egun segidan arduradun izanik. Izena emateko 5 euro ordaindu behar dira eta gurasoek hilaren 18ra arteko epea dute izena emateko. Haien artean, zozketa bidez, udalarekin hitz egiten duen ordezkari bat aukeratu da. 21ean, 11:00etan, udalarekin. Bitartean txokoa behar bezala txukuntzeko atzo auzolan txikia egin zuten.

Emakumeen Bilguneako ikastaroetako izen ematea luzatuta

Hilaren 11ra arteko epea dago

Altsasuko Udaleko Emakumeen Bilguneak antolatutako ikastaroak honakoak dira: zeramika eta etxeko konponketak. Tailerrak, berriz, heltzeko plazerra, autodefentsa eta autoezagutza eta garapen pertsonala. Bilguneak Gure Etxea eraikinean duen bulegotik pasa behar da izena emateko. Tailerrak doakoak dira. Ikastaroen matrikulan hobia-riak eskuratzeko 2012ko errenta aitorpena aurkeztu beharko da.

Intxostiapuntan bada tokirik

Altsasuko Udaleko Gazteria Sailak antolatutako bi ikastaroetan oraindik ere tokia dago. Sukaldaritza trebatzeko lastailaren 3an hasi eta abenduaren 5a bitarteko ostegunetan, 17:30etik 19:30era izanen dira saioak (20 €). Sexualitate ezagutzak hantitzeko ikastaroa, berriz, hilaren 15ean hasi eta azaroaren 4a bitarteko astearteetan izanen da, 17:30etik 19:30era (doan). Izena Intxostiapuntan eman behar da.

Hildako santutegiko zaleen aldeko elizkizuna etzi

Azken urtean hil diren Aralarko San Migelen Anaitasuneko, kofradiako eta santutegiko ongileen aldeko meza igandean izanen da, 12:30ean santutegian bertan. Elizkizunean kantu gregorianoak kantatuko ditu Gaudeamus abesbatzak. Mezaren aurretik, 12:00etan, abesbatza berak kontzertua eskainiko du Santutegian bertan. Igandean, San Migel egunarekin, fededun ugari gozen Aralarrean. Mikel Gartzandia eta Jesus Sotilek bost meza eman zituzten. Eguerdikoa Juan Antonio Aznarez gotzain laguntzailerak zuzendu zuen. Elizkizun bakoitzaren ondoren aingeruaren irudia gurtzeko aukera izan zen. Osasuna eskatzeko kateak gorputz atal ezberdinetatik pasa zituztenak asko izan ziren, baita burua kapera zaharreko zuloan sartu zutenak ere.

Txistorra pintxoaren lehiaketa bueltan

Hilaren 13an jokatu da Arbizun udalak antolatutako txistorra pintxoaren lehiaketa, bosgarrena. Parte hartzen interesa dutenek lastailaren 10eko 14:00ak arte dute udalarekin izena emateko epea. Eskabide orria bete beharko dute horretarako. Arbizuko txistorra osagai nagusi duen pintxoaren prestatu beharko dute lehiakideek. Txistorra udalak emanen du eta gaitzatzeko osagaiak sukaldari bakoitzak eraman beharko ditu. Bost pintxo prestatu beharko ditu parte hartzaile bakoitzak, 11:30etik aurrera Aldabide elkarteko sukaldari. Parte hartzaile kopurua mugatua da.

Zer egin erabakitze eskubidearen inguruko herri galdeketa berrikin?

Ostegunetan, 20:00etan, Etxarri Aranazko kultur etxean herri batzarra izanen da

Iruñeko administrazioarekiko auzien 2. epaitegiak zuzentze indargabe utzi zuen Etxarri Aranazko Udalak autodeterminazioari buruz hartutako erabakia. Eta Etxarri 2012+1 ekimenak udalari auzi bidearekin aurrera erabazteko eskatu ondoren etorri da ekimenaren herri-batzararako deialdia. “Herri honek galdeketa hori egiten du”, aurreratu zuen Etxarri 2012+1eko kide Mikel Mundiñanok. Osteguneko batzarrean orain arteko baloratu eta iritzia jasoko dituzte.

Fdz de Garaialde Nafarroako Aralarko zuzendaritzan

Larunbatean Nafarroako Aralarrek bere konferentzia politikoa egin zuen. Ponentzia onartzearekin batera, Nafarroako Aralarko koordinatzaile berria ere aukeratu zuten: Xabier Lasa Gorraiz. Harekin batera zuzendaritzan izanen da Asun Fernandez de Garaialde altsasuarra.

MOTZEAN

Europa astinduz dinamika abiarazi du Askapenak

Erakunde internazionalistak *Inperialismoa hondoratu arte*, Europa astinduz leloa duen dinamika jarri du martxan. Hurrengo urtean hainbat ekimen egingen dituztela aurreratu dute Askapenatik. Dinamika horren barruan aurreneko ekimenak lastailaren 12aren inguruan antolatutakoak izanen dira, halako egunarekin hasi zelako Amerika kontinentearen konkista. Askapenatik azaldu dutenez, 90. hamarkadaz geroztik bigarren birkonkista bat gertatu da enpresa transnazionalen eskutik. Europako enpresa horien “jardun inperialista”

» Irurtzun

Heldu den urtean despedituko dira hilerria egokitze lanak

Irurtzongo Udalak, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren laguntzarekin, aldi baterako langileak kontratatuko ditu atzera ere heldu den urtean. Haien egitekoetako bat hilerriko horma bat egoki jartzea izanen da. Txiki Iriarte alkateak azaldu digunez, aurretik hilerriko espaloiak eta urbanizazioa modu berean egin dira, beste hainbat lanekin batera.

Horregatik, hilerrian aurreikusitako lan asko eginak dituelako, Irurtzongo Udalak uko egingen dio Nafarroako Gobernuak irailaren 9an emandako diru-laguntzari.

57.057 euroko inbertsiorako 29.867 eman behar zituen foru administrazioak. “Diru-laguntza eskatu genuenean atzera botaziguten eta udalak egitea erabaki zuen. Gelditzen dena egiteko ez du merezi diru-laguntza hartzea” azaldu digu alkateak.

Bestalde, Amaia eta Oskia kaleak oinezkoendako bihurtu direla eta orain arteko balorazioa positiboa dela esan du alkateak. Irurtzunen errolatuta eta zirkulazio zerga herrian bertan ordaintzen duten auzokideek besterik ezin dute autoa kalean sartu.



Amaia kalean auzokideek besterik ezingo dute autoa kalean sartu.

» Uharte Arakil

Estreinakoz Euskal Astea

Herriar talde batek sortu duen Uharte Arakilen Guk Gureak elkarte berriaren ekimena izan da Euskal Astea antolatzea. Elkarte berriak hiru helburu izanen ditu: memoria historikoa berreskuratzeko, euskal kultura bultzatzeko eta euskal nortasuna babesteko. Guk Gureak elkartetik jakinarazi dute, beste ekimen batzuekin batera Euskal Astea bi urtean behin antolatuko dute eta aldi bakoitzeko an gai bat izanen du ardatz.

Aurreneko edizioan memoria historikoa, euskara eta nortasuna izanen dira gaiak. Azken hori hilaren 12an astea itxiko duen Euskal Festan euskal ikurrei egingen zaien omenaldian azalduko da. Aurretik izanen da gehiago.



Auzatea Uharteko festetan.

Egitaraua

Nafarroa diktaduran, 1936-1975
Lastailaren 8an, asteartean, 20:00etan udaletxeko pleno aretoan. Hizlaria: Patxi Abasolo.

Sakana Euskara Bidean. Lastailaren 11n, ostiralean, 20:00etan udaletxeko pleno aretoan. Bideo emanaldia.

» Etxarri Aranatz



Larunbat arratsaldean artisau azoka izanen da.

Feriekin, ospakizunak

Aziendarik ez, baina mugimendu ugari izanen da egun hauetan Etxarri Aranatz. Bihar arratsaldean, esaterako, plazan 24 artisauk haien lana eta lanaren fruitua erakutsiko dute. Ikusi ahal izanen dira: talogileak; gaztagileak; egurra, buztina, harria, beira edo zumea lantzen dutenak; barraskiloekoizleak; isats egileak; landareekin artisau produktua egiten dituztenak; uken-

Etxarriko Gazte Asanbladaren egitaraua

» Lastailak 4, ostirala
20:30ean Makarroiakada.
23:00etan Kontzertuak: Dida eta Segismundo Toxikomano.

duak; bitxiak eta beste. Horrekin batera ibarreko artzainen gazta

Egitaraua

» Lastailak 4, ostirala
22:00etan Ferietako Pilota Partidak: 4 1/2an Bakaikoa - Errandonea Ijurre-Gorriti / Loban-Lasa

» Lastailak 5, larunbata
12:30ean Sakanako Trikitixa Eskola, plazan.
16:00etatik 20:00etara Artisanu Azoka.
16:30ean Sakanako artzaien X.Gazta Txapelketa.
17:30ean Umeendako talogintza eta eskulan tailerra. Sormen tailerrak, plazan.
18:00etan Gazta Txapelketaren Sari Banaketa.
20:00etan Auzatea. Karrikekutu Elkartea.
20:00etan Salbea.
20:30etik 22:00etara Dantzaldia Tximeleta taldearekin.
22:00etan Zezensuzkoa.
00:30etik 3:30era Dantzaldia Tximeleta taldearekin.

» Lastailak 6, igandea
11:00etan XXXVIII. mendira joan etorria. Antolatzailea: Udaaberri Elkartea.
11:15ean Auzatea. Larrañeta Elkartea.
13:00etan Nafarroako I. Mailako Aizkora Txapelketaren kanporaketa. Euskal Herriari Udal Pilotalekuan.
13:30ean Sakanako Trikitixa Eskola. Plazan.
18:00etan Txarlestrop, Zirika Zirkus Taldea. Kale animazioa, plazan (eguraldi txarra egiten badu, Kultur Etxean).
19:00etatik 22:00etara Dantzaldia Ibai Berriak taldearekin.
21:00etan Zezensuzkoa.

txapelketa ere jokatuko da. Igandean kirola izanen da nagusi.

» Etxarri Aranatz

Zorri azoka bueltan

Gaur, 17:00etatik 21:00etara etxe handiko estalpean

Hirugarrenez segidan, hilabeteko aurreneko ostiralarekin batera Etxarri Aranatz merkatu soziala, Zorri azoka izanen da. Sakanako ekoizle, artisau eta artistak euren mahaian izanen dira haiek ekoiztutakoak saltzen. Fruitu eta barazki ekologikoak, bitxikeriak, bertako produktuak, margolanak... izanen dira. Gainera, ekoizleekin zuzenean hitz egin eta galderak egiteko aukera izanen da. Truke gunea ere izanenda, 19:00etatik 20:00etara eta horretarako mahai pare bat jarriko dituzte. Aurrekoetan Etxarriko gaiteroen emanaldia eta Yoseikan budo erakustaldia izan dira azokan. Gaur zer izanen den jakin nahi duenak estalpetik pasatzea du.

» Altsasu

Triptikoa: errepublika, guda eta errepresioa Nafarroan

Geronimo de Uztariz historialari elkarteak eta Egubera Taldeak, Nafarroako Gobernuaren laguntzaz, 1931 eta 1936 urteen artean Nafarroan gertatu zenari buruzko zikloa antolatu dute. Asteartean hasi eta ostegunean despedituko den hiru saioko

zikloa da eta Errepublika, guda eta errepresioa Nafarroan izenburua du. Saio bakoitzean historialari batek hitzaldia emateaz gain, dokumental bat proiektatuko da, sarrera doan.

+www.guaixe.net

Egitaraua

Nafarroaren katastrofea: estatu kolpea eta errepresioa 1936an
Lastailaren 8an, asteartean, 19:00etan, lortia kultur gunean. Hizlaria: Emilio Majuelo | Dokumentala: Corazones Rojos (2004).

Guda zibilia, zinema eta propaganda

Lastailaren 9an, asteazkenean, 19:00etan, lortia kultur gunean. Hizlaria: Juan Madariaga | Proiektzioa: garaiko grabazioak.

Erligioa eta errepublikaren aurkako mobilizazioa Nafarroan, 1931-1936
Lastailaren 10ean, ostegunean, 19:00etan, lortia kultur gunean. Hizlaria: Javier Dronda | “Con Cristo o contra Cristo” liburuaren aurkezpena.

ZERGATIK BAZTERTUKO ZENUKE CITROËNEN ESPERIENTZIA?

OLIO+FILTRO ALDAKETA 59€
-TIK⁽¹⁾

LUBRIFIKATZAILEETAN ESKAINTZA BEREZIA

AZKEN PREZIOA ZERGAZ BARNE
QUARTZ 7000 10W40 LUBRIFIKATZAILEA ERABILITA

CITROËN ESPERIENTZIA LORTU OPARI

DOAN ETA ZOZKETA GABE⁽²⁾
GIMNASIOETARA SARRERAK, PILATES, IGERIKETA,
PADEAL, GOLFA, YOGA, KAYAK ETA ASKOZ ERE GEHIAGO.
INFORMAZIO GEHIAGO: www.tuexperenciaticroen.com

www.citroen.es



2013/09/10ETIK 2013/11/15ERA

(1) TOTAL QUARTZ 9000 SW40 lubrikatzailea erabiltza, azken prezioa 69€ da, eta TOTAL QUARTZ INEO ECS 5W30 (5L-tako karterra duten ibilgailuentzat bakarrik) lubrikatzailea erabiltza 79€ da. ESKAINTZA baliagarria ibilgailu partikular eta 2L baino gehiagoko motorizazioa ez duten utilitario arinentzat. JUMPER modeloa ez da eskaintzan sartzen.
(2) Citroën Zerbitzu Ofizialetan edo honi atxikitako tailer batean TOTAL QUARTZ 7000 10W40, TOTAL QUARTZ 9000 SW40 edo TOTAL QUARTZ INEO ECS 5W30 lubrikatzaileekin egindako olio eta filtro aldaketa egiten duten eta CITROËN autoa duten edota jabeak diren pertsonak parte hartu dezakete eskaintzan. Erabilitako olioak Citroën Zerbitzu Ofizialak hornituko du. Citroën esperientzia, aisi eta kirol ekintzetan datza eta hauek 2013/03/31ra arte erabilgarriak izango dira. Informazio gehiago eskaintza honetara atxikita dauden Citroën Zerbitzu Ofizialetan eta www.citroen.es-en.



CITROËN preferie TOTAL



>> Errotz

Oskiako harrobiaren errestaurazio plana zorrotz jarraituko dute

Leherketen aurretik gaztigatzea eta txikiak izatea eskatu dute aldamenetako herrietako biztanleek

Nafarroako Gobernuak eta Canteras de Oskia enpresak irailaren 26an aurkeztu zuten harrobia lehengoratzeko plana eta faseak. Arakilgoalkate Ruben Goñi Urrozek, bestalde, plan horren jarraipen batzordearen eta haren egitekoen berri eman zuen. Izurdiagako kontzeju etxean 30 bat pertsona izan ziren, gehienak errozkoak eta atondokoak ziren. Bai haiendako, nola haien kontzeju eta udalendako errestaurazio plana ezkutuko ustiapen plana da eta hala adierazi zuten bileran. Herritarrek hainbat ekarpen egin zituzten bileran. Lehenengo etabehin Errozko eta Atondoko etxeen egoeraren inguruko txostena egitea eskatu dute, bai barrutik bai kanpotik. Materiala ateratzeko leherketak hasten direnean, eraginik izanez gero aseguru etxeekin borrokarik ez izateko. Bestalde, materiala ateratzeko egiten diren leherketen inguruko hainbat neurri hartzea eskatu zuten. Lehenik eta behin, alde zaurretik eguna eta ordua jakinaraztea. Bestetik, ahal dela leherketa txikiak egitea eskatu zuten. Horretaz gain, leherketek sortutako hautsarekin ere kexu azaldu dira behin baino gehiagotan erroztarrak. Batez ere udan eta hego haizeak jotzen duenean. Halakoetan behar bezalako neurketak egitea eskatu zuten.

UDALA

Planaren jarraipen batzordearen bidez ingurumen inpaktu txostenen jasotakoa betetzen dela “zorrotz” zainduko du Arakilgo Udalak Nafarroako Gobernuaren inplikazioarekin (erreka libratu, lur bejatala jarri, zuhaitzak landatu...) Horregatik, urtero harrobira bisitan joanen dira hautetsiak, gauzak behar bezala egiten ari direla zehazteko. Gainera, egindako bileraren antzekoak egingen dira urtero. Enpresak aurreko urtean egindako lanak azalduko ditu eta hurrengorako aurreikusi dituen lanak azaldu beharko ditu. Horrela orain arte ustiapenaren inguruan egondako kontrol falta saihestu nahi du udalak.

Datuak
- 2022ko garagarri lerako des-pedituta egon beharko du harrobiaren errestaurazioa.
- 2 milioi m ³ aterako dira. Aurten 30.000.
- Errozko herri lurren 23.000 m ² erabiliko dira harrobia errestauratzeko.
- Errozko herri lurren 16.761 m ² erabiliko dira bideak egiteko.
- Atondoko herri lurren 99.183 m ² erabiliko dira harrobia errestauratzeko.
- Basoko 4,5 hektareari eraginen die planak.

>> Altsasu



Gaztetxean ospakizunak izanen dira.

Gaztetxearen urteurrenean ospakizunak

Pausoz pauso autogestioaren aztar-na utziz leloa aukeratu du Altsasu-ko Gazte Asanbladak (AGA) gazte-
txearen 23. urteurrena ospatzeko. Okupazio efemeridea bihar beteko da eta, hori dela eta, asteartean mar-
txan jarri zen egitaraua. Sexualita-
teari buruzko mahai-ingurua izan
zen. Herenegun, AGAko kideek aste-
roko batzarra plazan egin zuten eta
atzo ontto bilketa egin zuten gaur
afaldu ahal izateko eta pintxo-potea
ere izan zuten gaztetxean. Astebu-
rurako AGAko kideek gauza gehia-
go antolatu dituzte.

Egitaraua
>> Lastailak 4, ostirala 17:00etan Haurrendako jolasak (ginkana, txokolatada, puzgarria...) 21:30ean Afaria gaztetxean. 23:30ean Hutsun, txalaparta ikuskitzuna.
>> Lastailak 5, larunbata Bilboko Herriaren aldeko manifestazioarekin bat egin da eta iragarria zegoen kalderete lehiaketa eta beste, atzeratu egin dira.

>>

Omenaldiak jubilatuko elkartean

Lastailaren aurreneko egunean Adin-
duen Nazioarteko Eguna ospatzen
da eta egun seinalatu hori baliatu
zuen La Union jubilatuko eta pentsio-
dunen elkartek bazkide eguna
ospatzeko. 597 bazkideetatik 160
izan ziren mahaiaren inguruan bil-
du zirenak. Bazkal burukoekin bate-
ra iritsi zen 90 urte dituzten bazki-
deak omentzeko txanda: Silvina
Esteban, Victorina Fernandez, Pri-
mitiva Galan, Cristina Sueskun, Fe-
lixa Mendia, Silverio Beraza eta M^a
Angeles Letona. Aldi berean, Nafarroako Kutxa fun-
dazioak diamantezko ezteiak bete
dituzten ezkonkideak omendu
zituen: Trinidad San Roman eta
Miguel Miguez eta Paka Uribe eta
Francisco Perez. Urrezko ezteiak bete
dituzten senar-emazteak ere omen-
duak izan ziren: Francisca Santano
eta Esteban Diaz, Saturnina Marti-
nez eta Roman Vazquez, Priscila
Matea Berenguer eta Domingo Cla-
ver, Amelia Carabias eta Justino Iguz-
kiza, Benilda Irigoien eta Jose Maz-
karian eta Felisa Herrera eta Emi-
lio Boulandier.

>> Irurtzun

Bigarren eskuko azokako bioaniztasuna babesteko proiektu bat laguntzeko



Irurtzongo azokan ateratakoarekin hainbat ekimen lagunduko ditu Itxipuruk.

Igandean, 10:00etatik 14:00etara, Itxipuruk antolatutako azoka Irurtzongo plazan izanen da. Eguraldiak laguntzen ez badu frontoian

Etxean ditugun, erabiltzen ez eta egoera onean dauden liburu, dis-
ko, arropa, sukaldeko tresneri,
altzari, jostailu eta abarri irtenbi-
de bat eman eta kontsumo ardu-
ratsuagoa sustatu nahian hasizen
Itxipuru taldea 2. eskuko azokak
antolatzen.

Igandekoa 26.a izanen da. Mau-
ka ederrak opatzeko aukera izanen
da atzera ere. Horretaz, gain,
11:00etatik aurrera Nafarroako
hazien bankuko kideekin hazien tai-
lerra izanen da. 12:00etan, berriz,
Entre2siones bikotearen kontzertua
eta afrikar perkusioa izanen dira.
Ez dira haurren txokoa, erakuske-
ta eta taberna faltako. Aurreko
larunbatean Iratxo elkartean anto-
latutako elkartasun afarian 65 per-
sona bildu ziren. Aurretik lagun-
dutako egitasmoa ezagutzeko doku-
mental bat proiektatu zuten.

Brasil, Paraguay eta Argentina
batzen diren tokian, Parana oiha-
na dago. Planetako bost bio-anizta-
sun gunegarrantzitsuen etariko bat
da. Inguru hori guztia Guaraniar
akuiiferoak hartzen du, planetako
ur geza erreserba handien etariko-
ak. Argentinatik gaztigatu dute-
nez, biodibertsitate gunehori “desa-
gertzeko arrisku larrian dago”.
Arrisku etako bat nekazaritza ere-
du nagusia da: labore bakar batzuk
landatzen dira, tabakoa, mate bela-
rra, pinua eta abar. Etengabe oiha-
nari tokia kentzen diote eta agro-
toxiko ugari erabiltzen dituzte.

Egoera horri aurre egiteko egi-
tasmoa aurkeztu zion Cemep Adis
erakundeak Itxipururi: Mby’a Gua-
raní komunitateen autonomia eta
elikadura-subiranotasuna berres-
kuratzeko oinarriak sortzea; eta
horretarako sortu den hazien ban-
kuari bultzada ematea. Urte bete-
an 6.500 euroko inbertsioa egin

nahi dute eta Itxipururen bidez
2.500 euro lortzea espero dute.

Hazi-bankua

2009tik martxan den hazien bankua-
ren helburua da Misionesen dauden
hazi autoktonoak berreskuratu,
babestu, ekoiztu eta zabaltzea. Haren
bidez eskualdek nekazar-aniztasu-
na babestu nahi dute eta, aldi bere-
an, ekoizle txikien, nekazari eta
indigenen elikadura-autonomia bul-
tzatu. Azken horien eta agroekolo-
gian goi mailako teknikari ikasle-
en arteko tokiko hazi ekoizpena, kon-
tserbazioa eta trukaketa bulkatzen
du hazien bankuak. Gaur egun 300
hazi-aldaera dituzte.

Labore bakarra ereiteak ekarri
dezakeen dependentsiarekin hausteko
eta ekoizleek euren ekoizpena
dibertsifikatzeko eta euren sobera-
kina merkaturatzeko bidea ematen
du hazien bankuak. Gero eta han-
diagoa den produktu ekologikoen
eskaerari erantzuten dio hazien
bankuak. Horrela, oihanaren kon-
tserbazioarekin bat datozen jar-
duera berriak lantzen hasi dira
tokiko hazien inguruan lan eginez.
Hazien multinazionalen mendeko-
tasuna ere eragozten dute horre-
la. Hala ere, dena ez da erraza, toki-
ko hazien kontserbaziorako zailta-
sunak daude, higadura genetiko
prozesu sendoa dagoelako.

El Ceibo

Aipatu hiru herrialdeak batzen
diren tokian, Argentinako Misiones
probintziako El Soberbio herrian,
Yaboti biosfera erreserbaren muga
esparruan kokatzen da proiektua.
El Ceibo kolonian bizi diren ekoiz-
le txikien 25 familia izanen dira onu-
radunak; guztiak ere agroekolo-
gian goi ikasketak dituztenak.

Argentinan ingurunea ia zen
bezala mantentzen da zati batean.
Eta muga eremuan eraiki zuten
Cemep Adisek Multigranja Agro-
kologiko Integrala, Parana oiaha-

Cemep Adis

18 urte baino gehiagoko espe-
rientzia duen irabazi asmorik
gabeko erakundea da. Bere jar-
duera agroekologian, Parana oia-
hanaren babesean eta herri
hezkuntza eta komunikazioan
oinarritzen da. Misiones probin-
tziako gizarte, kultura eta herri-
tar erakundeekin konpromiso
estua du.

Erakundearen egitekoa da gizar-
te zibileko erakundeak indartzen
lagunduko duten prozesuak bul-
tztatzea, oinarritzko erakundeak
indartzen lagunduko duten herri
hezkuntza eta homunikazio eki-
menak bultzatuz eta politika
publikoetan eragina izateko gai-
tasuna duten herritarren parte-
hartzeko prozesuak eraikitzea, hau
guztia garapen integral jasanga-
rria oinarritzat harturik.

Mby’a Guarani

Gaur egun inguru horretan hiru
guarani etnia bizi dira. Guztiek
tupi-guarani talde linguistikoko
hizkuntza bat hitz egiten dute.
Argentinako Misiones probin-
tzian bizi dena Mby’a Guarani
etnia da, 4.000 pertsona ingu-
ru osatutakoa. Hiru etnietan
osasun eta lurren jabetzaren
aldetik okerren bizi direnak
Mby’a Guaraniak dira; gehien-
goa eremu txikietan bizi da,
familia talde txikiak bilduz.

neko sustapen eta praktiketarako
hezkuntza zentroa. Hantxe 10 hek-
tarea dituzten eta haietatik bi hazien
ekoizpenari eskainiak dira. Bioerai-
kuntzan oinarritutako erabilera
anitzeko gela bat eraiki zuten eta
han tailer eta ikastaroak eskaintzen
dituzte.



GRUPO TANATORIO

IRACHE

TANATORIO TALDEA

948 19 70 70

www.tanatoriosirache.es

Oroigarriak



Guaixe
KOMUNIKAZIOA

948 564 275



Rosario Arregi Razkin

Zure irribarre handia gure alaitasunaren argia.

Felixen familia



Jose Luis Razkin Eraso

Ez nau iluntzen baratztatikan azken loreak biltzeak muga guztien arrazoi bila arnas gabe ibiltzeak.

Joxe eta Xabiren koadrilakoak

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu



Bidali mezua zorion@guaixe.net-era edo hots egin

948 564 275 telefonora



Pedro Nazabal Goñi

Txokala eta hurren arte. Zukin bizittutako momentu gozo guziok ez ttugu erraz ahaztuko. Eskerrik asko tio Pello.

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

2 TEKNOLOGIA

3 LANA/NEGOZIOAK

4 DENETARIK

5 IBILGAILUAK

6 HARREMANAK

7 AISIA/KIROLA

8 FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu, lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.net

Higiezinak
ETXEBIZITZAK
ERRENTAN EMAN
Etxarriko erdigunean pisua alokatzen da. 4. solairua, igogailua, 3 logela, dena kanpoaldera. Bista zoragarriak!! Telefonoa 619- 50 30 95.
Etxarri Aranatzen pisu bat alokatzen da. Erdialdean dago, berritua eta altzariekin, sukaldia, biltzeitxoarekin, egongela, 2 logela, komuna eta kamarotea. Telefonoa 629 91 47 24.
Oparitakoak
3 txakurkume oparitzen dira. Arratoi txakurrak, bi hilabete eta erdikoak. Telef: 678 80 37 34.
3 txakurkume oparitzen dira. Alaiak, politik eta jator jatorrak. Tamaina ertainekoak. Interesatuek hots egin ondoko telefonoetara: 948 56 37 41 edo 646 72 01 33.
Opatutakoak / galdutakoak
GALDUTAKOAK
Haur txirindula. Etxarriko liburutegiko paretan aurreko ostiralean ahaztuta utzi zen. Morea eta berdea da. Opatu duenak hots egin dezala 687 42 43 52 telefonora.
Lotuta zeuden bi ezkontza eraztun galdu . Irailaren 16-20ko astean Altsasun edo Etxarrin. Batean SA eta bestean SG inizialekin eta ezkontza

datarekin 21-11-64. Opatzen dituenak, mesedez, Guaixeko bulegora ekar ditzala.

Ikastaroak
AESei ikastaro hauek antolatu ditu. Planoen interpretazioa, 45 ordu, urriaren 21etik azaroaren 21era; Enpresa blog eta orrialdeen sorrera, 30 ordu, urriaren 28tik azaroaren 25era; Ingelera CI (aurreratua), 60 ordu, azaroaren 18tik urtarrilaren 30era; 2D aurreratua eta 3D planoen diseinua, 40 ordu, azaroaren 25etik urtarrilaren 20era.
Cederna Garalurrek ikastaro hauek antolatu ditu. Lehen sektorean eta zerbitzuenean lanean ari diren profesionalen eta langabeei zuzenduta dago. Alfabetatze digitala enplegua aktiboki bilatzeko, Olaztin urriak 7,8,9,10 eta 11, 9:00-13:30. Abeltzaintzako ekoizpenaren errentagarritasuna hobetzea larreak ongi erabiliz, lastailak 1,2,8,9,15,16,22 eta 23, 10:00-14:00, Arbizun. Sormena zure enpresan; berrikuntzak bezeroa abiapuntu hartuz, lastailak 18,23 eta 30 eta azaroak 6,13 eta 20 Arbizun, 9:00-14:00. Informazio gehiago, 948 56 70 10 telefonon edo info@cederna.es, sakana.admon@cederna.es helbide elektronikoetan.
Altsasuko udal ikastaroen eskaintza. Joste lanak, lentzeria, zeramika artistikoa, etxerako konponketak, eho-ziriak. Tailerrak: hizketaldi literarioak, heldueko plazerra, autoezagutza eta garapen pertsonala, ahalduntzea, lortuak antzerki tailerra. Informazio gehiago iortia@altsasu.net,

948 56 42 72.
UGT sindikatuak antolatutako ikastaroak. Psikomotrizitate geriatrikoa; Electrezitatea II; Aurreko eskorak erabiltzeko operadorea; Zeharkako orga jasotzaileak erabiltzeko gidatzailea. Informazio gehiago 948 46 71 20.
IFESek hainbat ikastaro antolatu ditu Iruñean. Informazio gehiago www.ifes.es, 948-15 31 93 edo 948- 46 71 20. On line ikastaroak: izen ematea <http://www.ifes.es>
Forem Navarra – CCOO ikastaroak. Informazio gehiago: www.foremnavarra.org
AIN-consulting ikastaroak. Informazio gehiago: 948 42 11 23 eta formacion.ain.es/
Oharrak
Haurren erritmoak errespetatzen dituen eskola libreanahi baduzu. Deitu 661- 59 04 20 telefonora.
Euskonek ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonek.com/laguntza euskonek@euskonek.com, 943- 32 22 94.
Inausketa nola egin – trukea. Informazio gehiago larrezabalddk@inigoaritz.com
Nafarroa Oinez. Lagundu nahi bagaituzu, honako esteka honetan klik egin eta izena eman ezazu.

Eskerrik asko! <https://docs.google.com/spreadsheets/embeddedform?formkey=dEZwZ0ZidIV6RUVTdHFjMklvR1c4TGc6MQ>
3MBk kontu korrontea zabaldu du. Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811
Auzolana Josefina Arregui klinikan. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela.
Bazkideak Josefina Arregi klinikarako. Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com eta amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com
Eskuratu zure beleixeguaixe txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.net.
Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutien bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoaren inmatkulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

JAIOTZAK

- **Julen Estarriaga Villarroel,** irailaren 20an Etxarri Aranatzen.
- **Saioa Audikana Olaiz,** irailaren 21ean Olaztin.
- **Iraia Lopetegi Etxeberria,** irailaren 23an Lakuntzan.

EZKONTZAK

- **Ignacio Alzuart Oteiza eta Raquel Mendez Barrena,** irailaren 28an Altsasun.

HERIOTZAK

- **Jose Iturralde Lizarraga,** irailaren 23an Dorraon.
- **Patricia Beraza Lopez,** irailaren 20an Iturmendin.
- **Jose Luis Razkin Eraso,** irailaren 26an Lakuntzan.
- **Francisco Perkaz Beraza,** irailaren 29an Altsasun.
- **Rosario Arregi Razkin,** irailaren 30ean Lakuntzan.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

Mendi lasterketak

38. Mendira Joan-Etorria Etxarri Aranatzan

Etxarriko Udaberri elkarteak, Etxarri Aranazko Udalak eta Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioak hainbat laguntzailerekin batera antolatuta, igandean, lastailaren 6an, Mendira Joan-Etorria-ren 38. edizioa jokatu da Etxarri Aranatzan, goizeko 11:00etan, ferietako ospakizunekin batera.

Probak 10 kilometroko luzera du eta 572 metroko desnibel pila-tua. Gehiengo altuera mendi gainean, Urbasa-Andiako bargan hartuko du (1.065m). Etxarriko Nafarroako Mendi Lasterketen Koparako azken proba puntuagarria da.

Proban parte hartzeko gutxieneko adina 16 urtekoa izan da. Aurreko urtean 90 korrikalari lehiatu ziren Etxarritik Urbasako Bargara igo eta jaisteko lasterketan, eta azkarrenak Fernando Etxegarai beratarra (45:17) eta Nerea Amilibia zizurkildarra (57:32) izan ziren. Hirugarrena eta lehen sakandarra Iñaki Martiarena uhartearra izan zen (48:47).

Berrikuntza: taldeka lehiatzeko aukera

Lasterketa herrikoia goa egiteko eta emakumezkoen parte-hartzea sustatzeko, Mendira Joan-Etorria



Erkuden San Martin helmugan.

taldeka egin ahal izangoda. Gutxienez lau pertsonaz osatutako taldeak aritu ahal dira. Eta talde azkarrenak afari bat egiteko lotea jasoko du.

Sariak: gizon eta emakumeendako

Lehenengoek: 90€, txapela eta sari berezia.

Bigarrenek: 60€ eta sari berezia.

Hirugarrenak: 30€ eta sari berezia.

Lehen etxarriarrak: 50€ eta sari berezia.

2. etxarriarrak: Sari berezia.

3. k Sari berezia.

Lehen beterranoek: Sari berezia.

Lehen taldeak: Afari bat egiteko lotea.

*Probako errekorra gaituz gero (Juan Mari Garinek 2001ean: 42:50): 200€-kosaria.

mendirajoa.net

Proban inguruko informazio guztia.

Izena ematea zabalik

www.mendizmendi.com webgunean egin behar da izena ematea, edo lasterketaren egunean bertan, 10 euro ordainduta. Korrikalari bakoitzak oroigarri bat jasoko du oroigarri. Probaren ondoren auzatea izanen da. Antolakuntzak proban aritzera eta proba zuzenean jarraitzera animatu ditu sakandarrak.

gertutik >>

Tomas Mauleon Goñi

Mendira Joan-Etorria sarritan aritutako korrikalaria



Etxarriko ferietan betiko moduan lasterrean ariko zara?

Aurten ez naiz aterako. Joan zen urtean asmoa nuen ateratzeko eta bezperan, zartako bat eman zidan eta fibrak hautsi. Eta ezin izan nintzen igo. Duela 2 urte utzi nion lehiatzeari eta, ordutik, nahiago dut nire albiziora korrika egin, gorputza obligatu gabe. Urte batzuk horrela agoantatzen baditut, mantentzeko bakarrik, horrekin konformatzen naiz.

Zure zaletasuna Etxarriko igoera horrekin hasi omen zen.

Bai. 36 urterekin korrikan hasi nintzen, baina lehiatu gabe. Etxarriko apustua ikusten

entsatzen nuen: posible ote da denbora horretan mendiko buelta egitea? Baina ez nintzen ateratzen, lotsagatik edo, eta 2-3 urte itxaron nituen atera arte. 1985 urtean hasi nintzen lehenengo, 40 urterekin. Hori izan zen nire lehendabiziko karrera. 26 urte egin ditut jarraian korrika probetan, gelditu gabe, Beste-lruña klubarekin.

Eta posible izan zenuen denbora horretan Joan Etorria egitea?

Bai. Baina gaurko gazteek nik egiten nuena baino denbora hobe egiten dute. Eta errazago.

Zenbat urtez igo zara Hartzabalera, maiatza jartzen den eta Etxarriko proba ailegatzan den tokira?

85ean hasi nintzen eta azkena 2011n jokatu nuen. Tarte horretatik lesionatuta egon naizen urteak kendu behar dira, dozena erdi bat inguru.



Zinca eta Olazabalen Urbasa

ZINCAK ERREKORRA APURTU ZUEN (1:45:58). 35 SAKANDAR ARITU ZIREN, JOSE LUIS BERAZA BURU.

240 korrikalarik hartu zuten irteera Sutegik antolatutako Olatzagutia-Urbsa mendi lasterketan, eta horietatik 220 iritsi ziren helmugara. Probak 23,2 km zituen, 1.367ko desnibel positiboarekin. Urbasako txoko ederrak, pagadiak eta arraso bikainak zeharkatu zituen, eta Nafarroako Mendi Lasterketen Koparako puntuagarria zen.

Hasieratik taldetxo bat kokatu zen aurrean, Aritz Egeak, Jokin Lizeagak eta Ionut Zinca osatutakoa. Batuta eman zuten probako zatirik handiena, azkeneko jaietsieran Zinca erritmoa bizkortu eta helmugara bakarrik iritsi arte (1:45:58). Aurreko astean Uharte Arakil-Beriain Km Bertikala irabaztetik zetorren gasteiztarrek 2008an Zuhaitz Ezpeletak ezarritako errekorra (1:45:59) segundo batean hobetu zuten. Egea bigarrena (1:46:47) eta Lizeaga hirugarrena (1:46:57) izan ziren. Emakumezkoetan borroka handia izan zen. Alicia Olazabal gailendu zen (2:20:04), Aitziber Ibarbiaren (2:21:02) eta Elena Calvilloren (2:22:08) aurretik.



Korrikalariak Urbasan gora. ERKUDEN RUIZ

35 sakandarrek osatu zuten proba. Azkarrena Jose Luis Beraza uhartearra izan zen, helmugara 8.a iritsita (1:59:47). Ander Unzurrunzaga 9.a izan zen, lehen beterranoa. Emakumezkoetan, Arantzazu Larrañaga uhartearra 6.a iritsi zen (2:44:21), lehen sakandarra. Jone Pelaez altsasuarra 12.a izan zen (2:59:09), lehen beterranoa.

Julen Paniagua bigarrena proba motzean

Proba nagusiarekin batera, antolatzaileek juniorrendako eta kade-teendako lasterketa laburrak antolatu zuten, 16 kilometrokoak. Burgoseko Joel Aubeso izan zen azkarrena (1:31:58). Julen Paniagua urdiaindarra 2.a izan zen (1:35:53).

Sakandarrak Olatzagutia-Urbsan (23,2 km)

1.	Ionut Zinca	1:45:58
8.	Jose Luis Beraza	1:59:47
9.	Ander Unzurrunzaga (lehen beterranoa)	2:00:14
18.	Jose Javier Maiza	2:06:31
21.	Fco. Javier Gomez	2:07:55
22.	Aritz Munariz	2:08:29
23.	Evaristo Noveleta	2:08:31
26.	Gorka Santesteban	2:10:03
55.	Patxi Cano	2:18:16
59.	Andoni Azanza	2:19:01
62.	Juantxo Arregi	2:19:38
79.	Juan Carlos Gomez	2:23:07
81.	Gorka Acebes	2:23:45
91.	Iraitz Senar	2:25:12
95.	Borja Gonzalez	2:26:55
101.	Alberto Anton	2:27:57
102.	Mikel Satrustegi	2:28:04
127.	Alberto Arrizabalaga	2:34:02
135.	Fernando Mazkarian	2:36:28
146.	Sergio Goñi	2:39:48
152.	Jose Leitza	2:41:12
156.	Fernin Zornoza	2:42:35
157.	Juanjo Otsoa	2:42:37
166.	Arantzazu Larrañaga	2:44:21
169.	Maite Beregaña	2:44:34
175.	Iñaki Ganuza	2:47:03
182.	Jose Ignazio Otsoa	2:51:56
183.	Iñaki Lacalle	2:52:17
188.	Javier Bados	2:53:45
189.	Fco. Javier Rodriguez	2:53:56
193.	Luis Tome	2:55:11
200.	Izaskun Beunza	2:59:07
201.	Jone Pelaez	2:59:09
204.	Angel Gurmindio	3:01:23
209.	Jon Garasa	3:03:23
212.	Iñaki Gurmindio	3:13:01

Olatzagutia-Urbsa laburra, junior eta kadeteendako (16 km)

1.	Joel Aubeso	1:31:58
2.	Julen Paniagua	1:35:53
4.	Ruben Mendieta	1:57:31
5.	Ander Gurmindio	3:10:45

Duatloia

Garcia de Eulate eta Borrega azkarrenak Valtierraiko Duatloiko erreleboetan

Larunbatean Valtierraiko Duatloia jokatu zen (5 km korrikan, 21 km txirindulan eta 2,5 km korrikan), banaka eta erreleboetan. Erreleboetan, Sakana Triatloi Taldeko Sergio Garcia de Eulate eta Javier Borrega altsasuarra gailendu ziren (1:05:46), Merinori eta Osesi minutu bat pasa aterata (1:06:56). Banakakoan Ibai Alba gailendu zen (1:02:33). Sakana Triatloi Taldeko Juan Luis Maiza 15.a izan zen (1:06:55) eta talde bereko Iñigo Maiza 58.a (1:15:35).

BESTE EMAITZAK

Bestalde, irailaren 22an Aoizko Zubiko II. Duatloi Krosa jokatu zen Agoitzen (5,8 km korrikan, 16,8 km bizikletan eta 2,9 km korrikan). Luis Mari Urizar izan zen txapelduna (1:06:08). Sergio Garcia de Eulate altsasuarra 8.a sailkatu zen (1:12:46). Aurretik, irailaren 14an, Mendigorrriako Triatloia jokatu zen (800 m igerian, 28 km bizikletan eta 6 km korrikan). Emilio Monagasek irabazi zuen (1:11:36). Sakana Triatloi Taldeko Felix Benjumea laugarrena izan zen (1:17:38).

Eskia

Urbasako eski denboraldia prestatzeko bilera asteartean

Urbasa Andia Ipar Eski Lagunak taldeak bilera deitu du urriaren 8an, asteartean, 20:00etan, Altsasun. Bate-tik, taldearen egoeraz informatuko dute. Bestetik, 2013-2014 denboraldia prestatzea eta antolatzea izango da egitekoa. Eskia maite duten guztiak gonbidatuta daude.

Ikastaroak

Swiss ball euskaraz Altsasun

Helduek kirola euskaraz egin ahal izateko aukera zabalduko du Altsasuko Ataboenpres publikoak. Horrela, swiss ball ikastaroa eskainiko du Atabok Altsasuko Labaderon, baldin eta dozena bat lagunek izena ematen badute. Swiss ball-ak ariketa fisikoak egiteko baliatzen diren baloi puzgarriak dira. Ariketa horiek gorputzaren jarrerara aldatzeko balio dute eta batez ere, bizkarrarendako dira onuragarriak. Swiss ball astelehenetan (19:30etik 20:25era) eta asteazkenetan (18:30etik 19:25era) eskainiko da, Labaderon.

IZENA EMATEA

Altsasuko Zelandi kiroldegian (948 562 786). Zelandiko bazkideek 64,40 euro ordaindu beharko dituzte kuota bakoitzean eta bazkide ez direnek 90,10 euro. 4 kuota dira guztira.

Atletismoa

Mercero Karrozen Kroseko txapelduna

San Fermin Txikitoko festen batzordeak antolatutako 33. Karrozen Krosean 60 urtetik gorako 6 korrikalarik hartu zuten parte. Carmen kaleko Bullicio peñatik hasita kale bukaerara arte joan behar ziren, 100 metro osatuz. Jose Mari Mercero ergoendarrak irabazi zuen proba, Felix Dominguezen eta Jose Mari Alvarezen aurretik. 74 urteko unanurrak ordu t'erdi lehenago euskararen aldeko kros batean hartu zuen parte. 18 urte zituenetik egiten du korrika eta sasoi betean dago.

Automobilismoa

Motor festa Urbasan

33. URBASAKO IGOERA JOKATUKO DA BIHAR, LARUNBATEAN, 14:00ETATIK AURRERA. ERREPIDEA 9:00ETAN ITXIKO DA. 70 PILOTU LEHIATUKO DIRA

Aurreko urteko etenaren ondoren, Urbasako motorren festa indar handiz itzuliko da. Sakana Motorsport taldeak antolatuta, 33. Urbasako Igoera jokatu da bihar, larunbatean, 14:00etatik aurrera. Urbasako Igoera arrakasta handiko ekitaldia da, ikuskizun hutsa, motorzaleek gustuko dutena. Bere urte onenetan 15.000-20.000 ikusle bildu izan ditu, eta nahiz eta eguraldi iragarpena kaxkarra izan, antolatzaileek Olazti-Urbasa igoerako txokoak zaleez betetzea espero dute. Errepidea goizeko 9:00etan itxiko da.

Beti da zaila tamaina horretako ekitaldi bat antolatzea: baime-nak lortu, segurtasuna lotu, dirua bildu... Aurrekontu handia behar da proba aurrera ateratzeko, asaguruak eta beste estaltzeko. Zailtasunei aurre eginez, Sakana Motorsport taldekoak munduko ilusio guztiarekin ari dira lanean. Horretarako Olaztiko Udalaren, Maisuenea gaztetxearen, Berrrik fundazioaren eta hamaika komertzio eta babesleren laguntza izan dute. Horregatik oso esker-tuta daude.

70 pilotu

33. Urbasa Igoera Nafarroako Mendi Txapelketarako puntuagarria da. 10 kategoria ezberdineko ibilgailuek parte hartzeko aukera dute. Autoak Clinker aurreko futbitoko pistan egongo dira, parke

3,72 kilometroko igoera



Olazti eta Zudaire arteko NA-718 errepidean jokatu da proba, 38,050 km puntutik 32,220 km puntura. 3,72 km izanen ditu, eta Olaztitik Urbasako portua igo arte jokatu da. Ibilbideak bi zati dauka. Lehenengo zatia irteeratik hasi eta "Salto de aguas" izenez ezagutzen den tokira artekoa da. Zati oso azkarra da, autoak ziztu bizian doaz eta akaso, ibilbideko bihurgunerik okerrera lehen zati horretan dago. Abiadura horren azkarra da ezen bihurgune horren peralteak kanpora botatzen baitu autoa. Kontu handia izan behar da hor. Bigarren zatia, aldiz, teknikoagoa da. Bihurgunez betetako zatia da, gehienak ferra bihurguneak, edo 180 gradukoak. Beraz, autoek abiadura moteldu beharko dute. Ikusle gehienak bertan pilatzen dira. Igoera auto indartsuendako egokia da. Izan ere, zati azkar asko daudenez, motor indartsua behar da.

itxian. Halaber, asistentzia gunea Erburua kiroldegiko aparkalekuan egongo da.

Urbasan 70 pilotu lehiatuko dira, asko aski ezagunak: Europako txapeladuna izandakoa eta aurkezpenik behar ez duen Pantxo Egozkue (BRC), aurten Espainiar Estatu osoan barna lehiatzen ari den Arkaitz Ordoki (Silver Car S2), Txus Jaiorekin batera zirkuituetan lehiatu den Aitor Arakistain (Silver Car S2), pilotu irregularra den, baina egun ona badu sekulakoa den Joseba Iraola (Silver Car S2) eta beste hainbat, tartean 6 sakandar. 2011n jokatutako azkeneko edizioan Pantxo Egozkue izan zen garailea (CM Bango), Gerard de la Casaren (Seat Cordoba WRC) eta Garikoitz Flores lakuntzarraren (Seat Leon) aurretik.

Segurtasuna eta garbitasuna, funtsezkoak

Pilotuen eta ikusleen segurtasu-

na bermatzea izango da klubaren helburu nagusia eta horregatik, soilik zehaztutako guneetan kokatzeko eskaria egingen zaie Urbasara hurbilduko diren ikusleei, debekatutako eremuetan ezingo da

Egitaraua

9:00etan: Urbasako errepidea trafikoarendako itxiko da.

9:00etatik aurrera: Ibilgailuen egiaztapen tekniko eta administrazioak Clinker parean.

12:00etan: Entrenamendu ofizialak.

Segidan: Lasterketako lehen-dabiziko eta bigarren mangak.

Lasterketaren ondoren: Sailkapenak publikatu eta sari ematea, Clinker jatetxean.

Boluntario izateko

Sakana Motorsport Klubak probaren egunean bertan eta lehenago ere boluntarioen laguntza beharko du. Hortaz, horretarako prest dagoena eskuak zabalik hartuko dute.

jarri. Horretaz gain, Urbasa-Andia natur parkea dela kontuan hartuta eta inguruarekiko errespetua adieraziz, antolakuntzak norberak bere zaborra jasotzea eskatzen du. Hortik aurrera, autoen ikuskizunaz gozatzeko eta egun polit bat pasatzeko deia egin diete zaletu guztiei.

Zozketa: Clinkerren bazkaria

Sarrerarekin batera jasotako eskuorrian zenbaki bat agertuko da. Izan ere, bi lagunendako bazkaria zozketatuko da Olaztiko Clinker jate-txean. Hortaz, eskuorria gordetze-ko deia egin dute antolatzaileek, sariduna nor den egiaztatzeko.

Gipuzkoako Rallyan ongi



Larunbatean 6. Gipuzkoako Rallya jokatu zen. 35 talde lehiatu ziren, eta soilik 18 iritsi ziren helmugara. Peru Urkidi eta Koldo Ugaldek (Citroen Saxo VTS) irabazi zuten rallya (37:48.300). Iban Lopez de Goikoetxea olaztiarrak eta Lander Mellak (Renault 5 Turbo) lan bikaina egin zuten. Nahiz eta arazomekanikoak izan eta asistentzia gunean lan asko egin behar izan, sailkapen orokorrean 8.ak (40:46.800) sailkatu ziren eta formula librean 2.ak. Nafarroako Txapelketan lehiatzen direnen artean lehenak izan ziren.

BILTOKI
TABERNA • JATETXEA

**Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta**

Astelehenetik ostiralera
**Eguneko menua
8,25€**

Asteburuetan
Menu berezia 25€

948 467 876 • Altsasu

nerea cenoz
nutrición

Giza Elikaduran eta Dietetikan Diplomatuak
(Nafarroako Unibersitatea)

info@nereacenoz.com
nereacenoz.com

Informazio gehiago 654 910 289 telefonoan

Estafeta 16, atzea • LAKUNTZA
(Bostekoa masaje zentroan)

Pisua kontrolatzeko dietak:

- Argaltzeko dietak
- Pisua hartzeko dietak
- Mantenimendu dietak
- Haurdunaldi-dietak

Patologia ezberdinetarako dietak

- Kirol-elikadura
- Elikadura arazoak
- Nutrizio-hezkuntza

HIJOS DE GOIKOETXEA
EDARI BANATZAILEA

**Patxarana egiteko anisa
3 litroko garrafak**

**24ºtakoa
29ºtakoa
35ºtakoa**

Geltoki auzoa 11
Altsasu
948 467 317 • 696 979 279
hijosdegoikoetxea@yahoo.es

Motoziklismoa

Mariñelarena, mundiala

PILOTU IRURTZUNDARRA MUNDUKO ABIADURA TXAPELKETAKO ARAGOIKO SARI NAGUSIAN 14.A IZAN ZEN, MUNDIALEKO LEHEN PUNTUAK LORTUTA

Munduko Motoziklismo Abiadura Txapelketa. Aragoiko Sari Nagusia		
Moto 2		
1.	Nicolas Terol (Aspar TEam Moto 2, Suter)	40:15.232
14.	Alex Mariñelarena (Blusens Avintia, Kalex)	+33.120

Asteburuan Munduko Abiadura Txapelketa Aragoiko Sari Nagusia jokatu da Alcañizeko MotorLand zirkuituan. Moto 2 mailan Alex Mariñelarena pilotu irurtzundarra aritu da. Sakandarra, Targobank Motorsport bere ohiko taldearekin aritu beharrean Blusens Avintia taldearekin arituzen, Dani Rivas pilotua ordezkatu baitzuen, Kalex motorrarekin.

Taldearen helburua proba despiditzeazen eta irurtzundarrak helburu hori gainditu du, lasterketa bukatzeaz gain, lehiatuz iren 33 pilotuen artean 14.a izan baitzen. Munduko pilotu onenen artean postu hori lortzea ez da nolana hikoia. Gainera, Mariñelarenak 3 postu erremontatzea lortu zuen, larunbateko klasifikazioan 17.a izan baitzen. Lasterketari dagokionez, Nico Terolek denboraldiko bigarren garaipena lortu zuen, Esteve Rabat eta Pol Espargaroren aurretik sail-

katuz. Nahiz eta Mariñelarena borroka horretatik kanpo egon, puntuazio postuetan sartzeko lehia estua izan zuen. West eta Rea pilotuekin. Maila horietako pilotuen artean postuz igotzea oso zaila da, eta Alexek hiru postu igotzea handia da oso. Saritzat, 2 puntu lortu zituen, Mundialeko lehendabiziko puntuak Mariñelarenarendako. Irurtzundarra Mundialean puntuatzen duen lehen nafarra dugu.

Mundialeko lehendabiziko puntuekin ilusionatuta

Taldea oso kontentu zegoen Alexek egindako lanarekin. “Lasterketa erritmo bikaina egin zuen. Irteeran aurrerago aterako balitz, top ten-ean egoteko aukera handiak lituzke” adierazi dute Blusens Avintia koek. Mariñelarena pozik zegoen. “Misanon entrenamendu onak egin genituen baina ezin izan genuen lasterketa bukatu. Alcañizen gehiago arriskatu eta estutuko bagenu gorago bukatu ahalko genuen, baina helburua lasterketa bukatzea zen eta lortu dugu. Oso pozik nago Mundialean nire lehendabiziko puntuak lortu ditudalako eta ilusio handia

Mundialean jarraituko du denboraldia bukatu arte



Alex Mariñelarenak Munduko Abiadura Txapelketan jarraituko du. Hasiera batean Dani Rivas pilotua hiru lasterketetan ordezkatzearen bere egitekoa, baina Blusens Avintia irurtzundarra denboraldia bukatu arte eurekin arituko dela erabaki du. “Oso aukera ona da esperientzia hartzeko eta hobetzeko, eta kontentunago” adierazi du irurtzundarrak. Nahiz eta aukera hau izan, Mariñelarenak badaki hurrengo denboraldian Mundialean jarraitzea zaila izango dela. “Badakit zaila dela, baina aukera hau balio dudala erakusteko baliatu nahi dut. Aurten go Mundiala ahalik eta hobekien

bukatzen saiatuko naiz, esperientziabilduz aurrerago aukerabiztan ahal izateko.

4 lasterketa

Mundiala bukatzeko lau lasterketa falta dira eta lauretan ariko da Alex: urriaren 13an Malasian, urriaren 20an Australian, urriaren 27an Japonian eta azaroaren 10ean Valentzian. Ondoren Espainiako Abiadura Txapelketako azken bi probatan lehiatuko da, Targobank Motorsport bere ohiko taldearekin: azaroaren 17an Valentzian eta azaroaren 24an Jerezen. Alex bigarrena da eta Roman Ramos liderrarekin borroka estua izango du.

ematen dit horrek” aipatu zuen irurtzundarrak. Atzera ere Mundialean aritza gustatuko litzaioke. “Espero dut puntu hauek azkenak ez izatea, nahiz eta kategoria honetan oso zaila izan”. Jakina,

ibilbide honetan babesa ematen diotenak hizpide izan zituen. “Laguntza ematen didaten guztiei eskerrak eman nahi dizkiet, eta baita taldeari ere, asteburu honetan egindako lanarengatik”.

Txirrindularitza



Guztira 400 partaide inguru aritu zirela adierazi dute Mank-etik.

Txirrindularekin Sakana gozatuz

Igandean ospatu zen XX. Sakana-ko Txirrindulari Eguna. Mank-eko Kirol Zerbitzuak antolatu zuen, Burunda eta Aralar Txirrindularitza klubengatik eta hainbat babeslerarekin. Goizeko 9:00etan 200 txirrindulari ateratu ziren, eguraldia lagun, Sakana zeharkatu eta Altsasuraino heltzeko helburuarekin (39 km). Adinekoak, helduak, gazteak, familia osoak... denak igo ziren bizikleta gainera. Arakileko herri, bide eta xenda politak pasa eta gero, Lakuntzan geldialdia egin zuten, gosaltzeko. Antolakuntzak freskagarriak banatu zituen. Ondoren bideari ekin zioten berriro,

Altsasuraino heltzeko. 250 txirrindulari inguru iritsi ziren helmugara, eta guztiek Nestlé izozkia jaso zuten opari. Antolakuntzak autobus zerbitzua eta bizikletak emateko kamioi zerbitzua antolatu zuen.

Bidean barna parte-hartzaile batzuk ibilbidea utzi eta beste asko gehitzen joaten dira. “Guztira, gutxi gora behera, 400 partaide ariko zirela uste dugu. Eguraldi bikaina egon zen eta giro ederra ibilbide guztian barna. Txirrindularen eguneko balorapen ona egiten dugu” adierazi digu Mank-eko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitiak.



Guerrero zuzenduko ditu Euskaltelen azken probak

20 urtez lanean aritu eta gero, Euskaltel Euskadi taldeak azken pedalakadak emanen ditu Frantzian eta Belgikan. Igandera arte Eurometrole Tourrean ariko dira, urriaren 8an Binche-Chimay-Binchen eta urriaren 10ean Paris Bourgesen, Oscar Guerrero zuzendari altsasuarren begiradapean. Txirrindulari sakandarrak ez dira lehiatuko.

Egoi Mundialean

Igandean jokatu zen Mundialeko las-

terketa, Florentzian, euripean. Mundialean debutatzen zuen Egoi Martinez etxarriarrak, Valverde eta Purito Rodriguez taldeburuen alde gogor lan egin eta gero, eroriko baten ondorioz ezin izan zuen proba despiditu. Rui Costa portugaldarra nagusitu zitzaizen Puritori eta Valverderi.

Bestalde, Imanol Erbiti Hiriberriko txirrindulariak Movistar Team-ekin duen kontratua berri- tu egin du beste bi urtetarako.

Lehendakari, Rosonendako



Rural Kutxa talde sakandarreko Jaime Roson txirrindulari zamar- rarak irabazi du 23 urtez azpi- ko Lehendakari Txapelketa. Garai- penarekin “oso kontentu” dago- ela adierazi du Rosonek. Rural Kutxako zuzendari Josemi Fernan- dezek azaldu duenez, kontentu daude. “Lehendakari Txapelketa, Espainiako Kopa, Nafarroako Vuel- ta eta este proba garrantzitsu batzuk irabazi ditugu, baina biru- sak eta lesioak direla medio den- boraldiko bigarren zatian gaizki pasatu dugu”.

Futbola

FEDERATUTAKO TXAPELKETA

3. MAILA

6. JARDUNALDIA

OBERENA 1 – LAGUN ARTEA 1
Iruñetik puntu baliotsua ekarri zuten lakuntzarrek. Hasieran Oberenak dominatu zuen, baina lakuntzarrek agoantatzen jakin zuten eta Cruzek berdintzea lortu zuen. Bukaeran lakuntzarrek gogor estutu zuten Oberena.

Sailkapena >>

- | | | |
|-----|-------------------|------|
| 1. | Cirbonero | 15 p |
| 11. | Lagun Artea | 7 p |

Asteburuko jardunaldia

LAGUN ARTEA – IZARRA
(Igandean, 16:45ean, Lakuntzan)

ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa

3. JARDUNALDIA

BETI KOZKOR 1 – ALTSASU 2
LAGUNAK B 1 – ETXARRI 0
LAGUN ARTEA B 0 – BETI ONAK 2
Altsasuk merezitako garaipena lortu zuen Lekunberrin, partida dominatu baitzuen. Javierrek eta Xabierrek sartu zituzten golak. Barañainen, Lagunak taldeak hainbat aukera izan zituen partida hasieran eta horietako batean aurreratu zen. Bigarren zatian Etxarri saiatu zen baina markagailua ez zen mugitu. Eta larunbatean, Lakuntzan, partida kaxkarrean, Beti Onak taldeak gehiago estutu zuen Lagun Artea eta 3 puntuak lortu zituen.

Sailkapena >>

- | | | |
|-----|----------------------|-----|
| 1. | San Jorge | 7 p |
| 5. | Altsasu | 6 p |
| 14. | Lagun Artea | 1 p |
| 15. | Etxarri Arantz | 1 p |

Asteburuko jardunaldia

ALTSASU – DONEZTEBE
(Larunbatean, 17:00etan, Altsasan)
KIROL SPORT – LAGUN ARTEA B
(Larunbatean, 18:00etan, Orkoienen)
ETXARRI ARANTZ – ARDOI
(Larunbatean, 16:30ean, Etxarrin)

Mendi txirrindularitza

Mikel Otxoa podiumean

Rural Kutxa BTT Kopan 23 urtez azpiko 3.a izan da izurdiagarra

Igandean Arazuriko BTTa jokatu zen, Rural Kutxa BTT Kopako zaz- pigarren eta azken proba (42 km). Aitor Hernandez izan zen garaile (1:40:38). Mikel Otxoa izurdiagarra 18.a sailkatu zen (2:01:11), 23 urtez azpikoen mailan bigarrena. Zazpi probek puntuatu dute Rural Kutxa BTT Kopan, tartean, ekainean Izurdiagan jokatu takoak. Elite mai- lan Patxi Cia izan da txapelduna eta 23 urtez azpikoetan Migel Sanzol. Mikel Otxoa izurdiagarra 3.a sailkatuta, eta Mikel Irigoien uhartearra 8.a.

Areto futbola

El Pozo izango du arerio gaur Xotak

Aurreko jardunaldian atsedena har- tu eta gero, ohorezko mailako 4. jar- dunaldia jokatu du Xota Nafarro- ak gaur, ostiralean, 21:00etan, Mur- tzian. El Pozo talde ahaltsuaren kontra ariko dira Imanol Arregiren mutilak. Egun bigarrena da El Pozo, Inter Movistar liderrarekin 7 pun- tutara berdinduta. Aldiz, Xota 8.a da, 3 punturekin. Xotako jokalaria sakandarrak –Asier Llamase, Roberto Martillek, Iñigo Amezketa eta Dani Saldisek– seku- lako partida jokatu zuten Burelaren kontra, eta ea El Pozoren kontra horren fin ibiltzen diren.

Botxa

Julen eta Santos Iragi txapeldunak

Igandean Elkarleen Arteko Botxa Txapelketa hartu zuen Irurtzungo Iratxoelkarteko botxategiak. Amaia, Txantrea, Antsoain eta Irurtzungo botxalariak parte hartu zuten. Berriozar eta Natación taldeko ordezkariak ezin izan ziren aritu. Botxa petanka antzeko joko tradizionala da. Partidak goizeko 11:30ean hasi ziren eta gaueko 9:00ak aldera despeditu. Finalera Irurtzun eta Amaia taldeak iritsi ziren, eta final oso estuan, Irurtzun taldeko Julen Iragik eta Santos Iragik 15-14 irabazi zieten Amaia taldeko Paco eta Jose Luisi. Aspalitik Elkarleen arteko txapelketa irabazi gabe egon ondoren, irurtzundarrek aurten lortu dute.

BANAKAKOA

Larunbatean Irurtzungo Banakako Botxa Txapelketa jokatu da, umeen eta helduen txapelketa. Guztira 27 jokalaririk ari dira lehian.



Sari emate ekitaldia. UTZITAKOAK

Mendia

Mendien Kluben eguna Altsasun

IGANDEAN OSPATUKO DA. 9:30EAN, ABIATUKO DIRA MENDI IBILBIDEAK ETA GERO BAZKARIA IZANEN DA ZELANDIKO FRONTOIAN

Nafarroako Mendi Federazioak antolatutako 11. Mendien Kluben eguna Altsasun hartuko du. “Goazen denok mendira” lelopean, igandean izanen da, lastailaren 6an. Helburua Nafarroako mendizaleak biltzea eta ibilbide eder baten ondoren egun pasa polita egitea da. Dantzaleku Sakana klubeko mendi sekzioa arduratuko da egunaren antolaketaz, hainbat klub, tartean Altsasuko Mendigoizaleak, eta babesleren laguntzarekin.

Bi ibilaldi egiteko aukera

Dantzaleku Sakana klubak bi mendi ibilaldi antolatu ditu, guztiek, helduek eta haurrek, parte hartzeko aukera izan dezaten. Bi ibilbideak goizeko 9:30ean abiatuko dira Altsasuko Foru Plazatik. Baso Itxitik Urdiaingo igerilekuetara iritsi ondoren, bi aukera daude, bata luzeagoa, eta laburragoa bestea. Salsamendira oinezko martxa izango da lehena, luzeena, (21,2 km). Urdiaingo igerilekuetatik Intsusburura (957,1 m) igotzea izango da lehenengo erronka. Gero, Salsamendi, Aitzarte, San Pedro eta Santa Luzia Sakanetik barna Dantzalekura heltzeko. San



Igandean mendira joateko gonbitea egiten du Dantzaleku-Sakana Klubak.

Pedrotik eta Baso Itxitik plazara helduko da ibilbidea. Bigarren ibilbidea laburragoa da, 10 km ingurukoa. Urdiaingo igerilekuetatik barna Araniara ailegatu da eta San Pedrotik eta Dantzalekutik pasa eta gero, Baso Itxin sartuko da, plazan bukatzeko. Antolatzaileek mendizaleei pin-txo txistorra eta salda eskainiko diete Foru plazan.

Omenaldiak

Dantzaleku Sakanak 3 altsasuarrei errekonozimendua egingen die igandeko festan, mendizale-tasuna bulkatzeagatik eta mendizale-tasunaren inguruan lan egi-teagatik.

Autogestionatutako bazkaria

Mendi ibilbideak bukatu eta gero, mendizaleak Zelandi frontoian bilduko dira bazkaltzera. Talde bakoitzak bere bazkaria emango du. Aldiz, antolakuntzak edaria, ogia, kafeak eta likoreak eskainiko ditu, eta baita bazkaria girotzeko musika ere.

Auntzetxen ikastolekin



Asteburuan Sakanako Ikastolen Mendi Taldeak ikasturteko lehen irteera egin zuen. Larunbat arratsaldean 50 lagun inguru elkartu ziren Etxarriko kanpinean. Auntzetxera igo eta bertan pasa zuten gaua. Biharamunean gosaldia, paseotxoa eman, hamaiketako egin eta Etxarriko kanpinera jaitsi ziren, asteburu bikaina pasa eta gero. Asmoa hilerio mendi irteera edo txango bat egitea da, etxeko txikienekin. Ondoko irteerak egiteko asmoa dago: Arbizuko bordak, Nerbioi ibaiko iturburua, Ergoienako Bira, Burunda ibaiko iturburua, Plazaolako ibilbidea, Altsasuko Bargagain, Aralarko Albiko Trikuharria eta Bustaizko bordak. Irteerak irekiak dira eta Sakanako familiei bertan parte hartzeko gonbitea eta deia egiten zaie.

Aizkora

Helburua: Nafarroako txapela

NAFARROAKO I. MAILAKO AIZKORA TXAPELKETAKO KANPORAKETA JOKATUKO DA IGANDEAN, 13:00ETAN, ETXARRI ARANATZEN

Etxarriko ferietan aizkorak beti du bere tokia. Aizkora zale asko ditugu bertan, eta Floren Nazabal txapeldun handia etxarriarra izanik, are gehiago. Igandean lehia-keta polita hartuko du Etxarri Aranazko pilotalekuak, 13:00etan: Nafarroako I. Mailako Aizkora Txapelketaren kanporaketa. 9aizkolaririk lehiatuko dira, egungo txapeldun Floren Nazabal etxarriarra buru dela, eta lehendabiziko bostek lortuko dute azaroaren

15ean Donezteben jokatu den finalerako sailkatzea. Azken bisailkatuek maila galduko dute. Aizkolariek 2 kanaerdiko, 2 60 ontzako eta oinbiko bat erdibitu beharko dituzte. Nazabalek senitartekoen, lagunaren eta herritarren laguntza izango du. Bera dakanporaketa irabazteko faborito nagusia, ezustekoren bat gertatzen ez bada.

Aizkolaria

Floren Nazabal (Etxarri Aranatz),



Nazabal da egungo txapelduna.

Jon Rekondo (Leitza), Ander Erasun (Aurtiz-Ituren), Antonio Senosiain (Olague), Donato Larretxea (Arantza), Juan Jose Lopez (Lezaun), Aitor Senosiain (Olague), Oihan Larretxea (Bera) eta Ruben Saralegi (Leitza). Xabier Mindegia osasun arazoekin dabil eta ez du txapelketan parte hartuko.

Frantsesa
Maila guztiak
Trinkoak
HEO prestaketa
Taldea edo banaka

AHALEGIN

Arkangoa 3-1 · ALTSASU
672 162 036 · 944 167 012
ahalegin@yahoo.es

Embudo industrial
Nafarroako berezko txistorrak izen bat du

FLORES S.L.
Artisanos - Pestañeros

Txistor ekologikoa

Utzuabar Industriak - Tel. - Fax: 948 460 499 - ARBIZU

URRIAK 5
2013
XXXIII. IGOERA URBASA

URRUTIA/URRUTIA
9:00am - Errepide itasiera
14:00am - Entrenamendua
Ondoren - Lehenengo txanda
- Bigarren txanda

ANTOLATZAILEA: **EULATE** Servicios Eléctricos

LAGUNTZAILEAK: **murrplastik**, **maksa**, **Noticias** Eres lo que lees, **ESCORA**, **RS motor**, **LASTADI**, **GRUP KITTIN**, **SAZKA**, **CANTERA**, **DYA**, **campingbarba.com**

kultura >>

Antzerkialdia Irurtzunen

Gaur, 21:30ean Irurtzungo kultur etxean, euskararen bilakaerari buruzko komediarekin estreinatuko da. Lastaileko ostiraletan antzerki emanaldi bana izanen da

Tartean Teatrok, hauda, Patxo Telleriak eta Mikel Martinezek euskararen historia errepasatuko dute gaur Irurtzungo kultur etxeko eskenatokian. *Lingua nabajorun* antzezlana taularatuko dute, kontakizuna paradisuan abiatuz, bikote bakar bat bizi zen garaian. Mundu estatiko eta bake-tsua zen, eta nahikoa ziren onomatopeiak inguruko animaliak eta agerraldi naturalak deskribatzeko. Seme-alaben etorrerarekin sortu zen Euskal Gatazka, orain arte iraun duen fenomenoa.

Telleriak eta Martinezek ziurtatzen dutenaren arabera “eus-



kaldunak historian zehar beti ibili dira liskarrean kanpokoekin edo euren artean. Liskarrok sortu eta garatu dute euskara. Gatazka bakoitzari euskararen aldaketa bat dagokio”. Teoriko horien

ondorioa da euskararen garapena ez dela inoiz geldituko, “gatazkak, modu batekoak edo bestekoak, beti egongo direlako”. Teoriaren antzeppenak algarak sortuko ditu publikoan.

bazterretik

Laida Aldaz Arrieta

Kiss and cry

Gaur egun, ahanzturan ez gelditzeko berrasmatzea dugu aukera bakarra, honela proposamen artistiko berriak bultzatuz.

Oraingo honetan, antzezlekua ikusgaidagoantzokiansartuorduko, oiha-lagutziz irekitatoputzen baitugu (dantza garaikidean gero eta ohikoagoa den jardura). Bertan pelikula filmaketa baten miniaturazko eszenatokia agertzen da, non paisaiak, panpinaetxeak, tren elektriko bat eta beste hainbat xehetasun bereizi ditzakegun. Hamar pertsona ere ageridira antzeztokian, isiltasunean, azken ikuslea esertzen den momentuaren zain.

Azkenik argiak itzaltzen dira, eta eszenatokiapoliki-poliki argitzen den bitartean, kamera batek zuzeneko irudiak pantaila erraldoi batean proiektatzen ditu. Pantaila horretan ikusiko ditugun pertsonaia nagusiak ez dira antzezeleak izango, bidantzari eneskua bai zik. Hauek izango dira istorio honetako ardatz. Hatzak pertsona baten oinak balirabezalamugitzen dira eszenatoki miniatura horretan, giza formak hartuz. Haindabidantzari hauek duten zehaztasun eta sentsibiltatea, eskuen bitartez “nanodantza” deituriko benetako koreografiak sortzen dituztela. Aldi berean, Thomas Gunzig-ek idatzitako “*Gisèle-en galdutako amodioak*” (Los amores perdidos de Gisèle) testuan oinarrituta, amodio, oroitzapen eta enkonstruistio-



rioak kontatzen dizkigu hots batek. Irudi hauen guztien bitartez sortutako olerkiek ametszeko mundu zoragarri batera garraiatzen gaituzte.

Dantzak eta bideoak elkarrekin lan egiten duten obra honetan, begirada nora zuzendu erabakitzea zaila da. Alde batetik, begiak dantzari eneskue-tara doaz, kamerak egiten dituen mugimenduetara, objektuak eta argiak erabiltzen dituzten laguntzaileetara; eta, beste aldetik, zuzenean sortzen eta proiektatzen ari den pelikulara. Ikuskizun honetan talde guztiak elkarrekin egiten du lan, arte mota bat bestearen menpegeldiez dadin. Antolaketa eta azken emaitzak garrantzi berdina dute.

Kiss and cry izeneko lanari buruz arinatzai zuehizketan, Bruselasean Jaco Van Dormael zuzendariaren eta Michèle Anne De Mey koreograforen eskuz sortutako obra.



Bilbon barna, Salazarren eskutik



Gaur, 19:30ean Dora Salazarrek Un paseo por Bilbao erakusketa mustuko du Windsor galerian. Azaroaren 15era arte izanen da ikusgai. Bihar eguerdian egilearekin hizketatzeko aukera izanen da

Argazkilaritza eta pinturaren arteko collagea eginez osatutako lamina panoramikoak. Bilboko txokoak gai hartuta hainbat lamina panoramiko sortu ditu Dora Salazarrek eta horiek izanen dira ikusgai. Egile altsasuarrek argazkiak oinarri hartuta, estudioan haien gainean erai-

ki, ordenatu eta instantea edo sekuentziak batu ditu, lehenaldiko ukitua duten panoramikak sortuz. Horretarako hainbat egile eta eskolen baliabideak erabili ditu “berez idealak diren tokiak idealizatzeko; eta, aldi berean, zalantzan jartzeko bai gure begiradak dituen baldintzagarriguztiak, baita irudiak erre-alitatearengan egiten duen nahasmen eta jabetzea ere”.

Aurretik ere, Salazarrek antzeko lanak eginak ditu; gero liburu formatua hartu dutenak. Donostiari eskaini zion *Recorrido* izenburu-

dun liburua, Bernardo Atxagaren testuez hornituta (2000, Euskadiko Kutxa). Andra Mari ikastolak antolatutako azken Nafarroa Oinezarekin batera argitaratu zuen *Berriaren itzalean* (2009, Erein) liburua, Sakanako irudiak eta Pako Aristi, Jon Arretxe, Itxaro Borda, Toti Martinez de Lezea, Juanjo Olasagarre, Castillo Suarez eta Kirmen Uriberen testuez lagunduta. *Bidezidorrak* (2010, Egilearen edizioa) liburuan sorlekua, Altsasu, izan zuen ardatz Salazarrek, Maria Eskibelen testuez lagunduta.

ETXARRI ARANTZKO FERIEK 2013

Urriaren 4a, ostirala
22:00 Euskal Herriari Udal Pilotalekuan.
Ferieta Pilotak Partidak
4 1/2 an Bakikoa - Errandona
Ijura-Gorriti
Loban-Lasa

Urriaren 5a, larunbata

12:30 Plazan. Sakanako Trikitixa Eskola.
16:00-20:00 Artisau Azoka.
16:30 Sakanako Artzaien X. Gazta Txapelketa.
17:30 Plazan. Umeentzako talogintza eta eskulan tailerra. Sormen tailerrak.
18:00 Gazta Txapelketaren Sari Banaketa.
20:00 Auzatea. Karriestu Elkartearen eskutik.
20:00 Salbea.
20:30-22:00 Dantzaldia Plazan. Tximeleta.
22:00 Zezensuzkoa.
00:30-3:30 Dantzaldia Plazan. Tximeleta.

Urriaren 6a, igandea

11:00 XXXVIII. mendira joan etorria. Antolatzailea: Udaberri Elkarte.
11:15 Auzatea. Larrañeta Elkartearen eskutik.
13:00 Euskal Herriari Udal Pilotalekuan. Nafarroako 1. Mailako Aizkora Txapelketaren kanporaketa.
Floren Nazabal (Itxarri Aranatz) Jon Bekondo (Leitza)
Ander Erasun (Aurtiz-Ituren) Antonio Senosiain (Olague)
Donato Larretxea (Aranatz) Juan Jose Lopez (Lezaun)
Aitor Senosiain (Olague) Oihana Larretxea (Bera)
Ruben Saralegi (Leitza)
Aizkolariei bakoitzak moztu beharreko enborrak:
Bi kanerdiak, bi 60 orritako eta oinbiko bat.
Sarrera: 10 €. Antolatzailea: Nafarroako Herri Kirol Federazioa. Laguntzailea: Etxarri Aranatzko Udalak.

13:30 Plazan. Sakanako Trikitixa Eskola.
18:00 Kale-animazioa, plazan: Txarlestrop Zirika Zirkus Taldea.
19:00-22:00 Dantzaldia Plazan. Ibai Berriak
21:00 Zezensuzkoa

HORTZ KLINIKA

Etxarri

Eguerdietan zabalik

Urte bat bete dugu,
urte askotarako zuen zerbitzura!
Eskerrik asko!

948 460 315 · Kale Nagusia 27 · Etxarri Aranatz

Saharari kantatuz Reparaz Tinduferra

Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoaren Arabako lagunaren elkartek antolatu zuen kantu lehiaketa. Sari nagusia FISaharara joatea (Saharako nazioarteko zinemajaialdiaren X. edizioa, hilaren 8tik 13ra izanen da, Tindufeko errefuxiatu eremuan) eta jaialdiko kontzertu nagusian parte hartzeaz. Oinarriak irakurrita Pello Reparazek ez zuen bitan pentsatu eta lehiaketan aurkeztea erabaki zuen. Baita *Oroitzapenean* izeneko kantuarekin irabazi ere.

Izan ere, Reparaz sahararren errefuxiatu eremuetara bueltatzeko "irrikitan" zegoen. Halaxe aitortu du **Beleixe Irratian (FM 107,3)**. "Kriston ilusioa egin zidan irabazteak eta berriro hara joateak nire hango lagunekin berriro biltzeak. Gauza handia izanen da". Joan zen urteko Aste Santuan taldearekin, Vendettarekin, egon zen. "Nolabaiteko bira egin genuen errefuxiatuen kanpamenduetan".

Reparazek azaldu duenez, "han egon direnek badakite sekulako esperientzia dela eta guretako esperientzia ikaragarria izan zen. Honantz etorri aurretik bueltatzeko gogoz geunden". Arrastoa uzten duten bidai horietako bat izan zela gaineratu du **Beleixe Irratian (FM**

107,3): "oso esperientzia inportantea eta norberaren buruari dago-kionez oso iraultzailea. Han egon izanak gauzak beste modu batera ikustarazten dizu. Hemendik joan baino lehen pentsatzen genuena baino askoz aurreratuago daude".

Lehiaketa

Bueltatzeko gogoz zegoen eta Sahararen aldeko lehiaketa suertatu zen: "Sahararen aldeko kanta bat idatzi beharra zegoen. Bakarlarri bezala parte hartu behar zen eta nik neuk parte hartzea erabaki nuen. Sariak berak, errefuxiatu eremura joateak, dezente motibatu ninduen". Lehiaketaren berri jakin eta zalantzarik gabe aurkeztu zen arbizuarrak. "Ongi atera da eta berriro Sahara joateko aukera suertatu da". Lur Larrazagitarra-jole etxarriarrarekin joanen da.

Argitaratu gabeko kantua aurkeztu behar zen. "Aurkeztu diren guztiekin kontzertua egin zen maiatzean Gasteizen eta disko bat argitaratu da". Reparazek lehiaketara aurkeztutako kantua etxean grabatu zuen. Arbizuko sinfonia ere hala prestatu zuen. "Asko gustatzen zait produkzioa, kantuak grabatu eta ekoiztea. Aski pozik nago emaitzarekin".

Oroitzapenetan kantua

Marokok okupatutako lurralde-
etara ezin bueltatu eta Aljeria-
ko basamortuko errefuxiatu ere-
muetan gehien faltan botatzen
dutena itsasoa da. Hari kantatu
dio Reparazek. "Nahiko kantu
malenkoniotsua da. Nik han bizi-
takoan oinarrituta sortu nuen eta
beraien sentipenak islatzen dira
gehien bat".

Egunerokoa

Heldu den astea emanen dute
Reparazek eta Larrazak Tindu-
fen. Reparazek bizitakoekin eta
FISaharan gertatutakoekin berri
emanez eguneroko bat publika-
tuko du *Saharari kantari* Face-
book kontuan. Kontzertua Toni-
no Carotonerekin batera eman-
en du. Ondu duen kantuarekin
batera besteren bat gehiago ere
eskainiko du. "Baina askoz gehia-
go ere ez, ez gara bakarlarriak".
Emanaldia azken egunean da,
baina bidaian, kontzertua biga-
rren planoan dagoela aitortu du
Reparazek.



Bertsolari Txapelketa Nagusiko Altsasuko kanporaketarako sarrerak Iortian salgai

Lastailaren 13an, igandean, 17:30ean
izanen da, Burunda pilotalekuan

Dagoeneko martxan dago XVI. Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia. 43 bertsolari Barakaldoko Bilbao Exhibition Centreko finalerako txartela eskuratzeko neurtuko dira. Bidean Altsasun lastailaren 13an kanporaketa jokatu da. Beñat Gaztelumendi, Erika Lagoma, Jexux Mari Irazu, Oihane Perea, Unai Agirre eta Xabier Silveira ariko dira bertsotan. Haiek entzun nahi dituenak sarrerak Iortia kultur gunean eskuratu ditzake. Bestela, www.bertsosarrerak.euatariaren bidez eskuratu daitezke.

etxarri aranazko udala

XEHETASUN AZTERLANAREN HASIERAKO ONESPENA

Etxarri Aranatzeko Udalak, 2013ko irailaren 16ko ebazpenaren bidez, hasiera batez onetsi zuen, UE17 unitateko B1, B2 eta B3 partzelen xehetasun azterlana. Sustatzailea Fernando Urrestarazu Ijurko.

35/2002 Foru Legearen 76. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, espediente jendaurrean egonen da hogeit egunez, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita, aztertu eta bidezko alegazioak aurkez daitez. Jendaurreko epean ez badu inork alegaziorik aurkezten, agiria behin betikoz onetsiko da, betiere bidezko bada.



**ETXARRI
ARANAZKO
UDALA**

Etxarri Aranatzen, 2013ko irailaren 27an.

Alkatea: Jose Ignacio Bakaikoa Aristorena

etxarri aranazko udala

XEHETASUN AZTERLANAREN HASIERAKO ONESPENA

Etxarri Aranatzeko Udalak, 2013ko irailaren 16ko ebazpenaren bidez, hasiera batez onetsi zuen 1. poligonoko 89 partzelaren (Zugarreta Kalea), xehetasun azterlana. Sustatzailea Jose Mari Martiñeiz y Lourdes Razquin.

35/2002 Foru Legearen 76. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, espediente jendaurrean egonen da hogeit egunez, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita, aztertu eta bidezko alegazioak aurkez daitez. Jendaurreko epean ez badu inork alegaziorik aurkezten, agiria behin betikoz onetsiko da, betiere bidezko bada.



**ETXARRI
ARANAZKO
UDALA**

Etxarri Aranatzen, 2013ko irailaren 27an.

Alkatea: Jose Ignacio Bakaikoa Aristorena

**MARiNELETXE
HARATEGiA**

Etxeko tripekiak

948 46 19 80
636 70 74 88

Larrañeta Kalea 6
Etxarri Aranatz

MONSTRUOS UNIVERSITY

3€

MONSTRUOS UNIVERSITY
IGANDEA 6 17:00

AHORA ME VES

5€

AHORA ME VES
OSTIRALA 4 22:00
IGANDEA 6 20:10

948564272 - iortia@altsasu.net - iortiakultura.com

G

asteko >> : eguraldia

ostirala

euria: 88%

Min: 15 Max: 19

larunbata

euria: 38%

Min: 11 Max: 18

igandea

euria: 20%

Min: 11 Max: 16

astelehena

euria: 10%

Min: 9 Max: 17

asteartea

euria: 5%

Min: 8 Max: 21

asteazkena

euria: 8%

Min: 11 Max: 23

osteguna

euria: 13%

Min: 12 Max: 23

temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	-	13	-
Etxarri A.	30.2	11.5	6.3
Altsasu	30	12.5	4.7
Aralar	22.1	9.5	3.8
Urbasa	25	10	7.9

ilargiaren aldia>>

ilberri	ilgora	ilbete	ilbehera
5	11	18	26

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA

GEHIAGO ETA HOBE

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

Tel: 948 563 253

Arkinorruti Industrialdea, OLAZTI

Erakusketa: Olite kalea 16 IRUÑEA

1.- Non hartzen dituzu fosilak eta mineralak?
Gehienak Sakanako eta inguru-kozonaldeetan lortu ditut. Hemen go fosilak erakusten saiatu naiz. Mendira joaten naiz, begiratzen hasten naiz eta horrela topatzen ditut. Lagunak kanpora joaten direnean ere mineral asko ekar-tzen dizkidate.

2.- Fosilak topatzea zaila da?
Bai, bista ona izatea ezinbestekoa da eta nora joan jakin behar duzu. Badira gauza batzuk aurkitzeko oso zailak direla.

3.- Zure ustez, non aurkitu daitezke fosil hoberenak edo politenak?
Hemen politenak harrobian aurkitzen dira. Lurra mugitu duten tokian aurkitzen dira gehien.

4.- Nola hasi zinen fosilen eta mineralen bilduma osatzen?
Nire aitona mendi-zaina zen eta berarekin pirita bat aurkitu nuen. Bereziki gustatzen zait. Erakusketan jarri dut. Aurkitutako lehenengotarikoa izan zen. Gero Benjamin lehengusuarekin hasi nintzen. Berak sortuzidana zaletasuna.

>> 11 galdera

Sergio Barrenetxea
Fosil eta mineralen zalea

Testua: Erkuden Ruiz Barroso

5.- Olatzagutian egin duzun erakusketa lehenengoa izan da?
Bai, horrelako zerbait egiteko esan zidaten eta animatu nintzen.

6.- Zer moduzkoa izan da esperientzia?
Ona, nahiz eta artisau azoka kiroldegian egin behar izatea pena izan.

7.- Modu jakin batean gordetzen



dituzu?
Erakusleioak ditut, baina garrantzitsuak gehiago ditut. Garbitu gabe ditut eta ez dut erakusteko denborarik izan. Garbitzeko denbora asko behar baita. Biordu

inguru egon zaitezke garbitzen eta, agian, ez da nahi duzun bezala gelditzen. Askok ditut, ez dakit zenbat. Baina jada ez dut jartzeko lekurik.

8.- Bilduma handitzeko nahia duzu?
Bai, zaletasuna da. Egunen batean zerbait ateratzen bada eman-go nituzke.

9.- Zer motatako fosilak dira? Eta mineralak?
Denetarik dago; itsaslakatzak, barraskiloak, crasterrak... Hemen lor daitezkeen ohiko fosilak dira. Mineral aldetik pirita da nagusiena.

10.- Zergatik dira fosilak bereziak?
Lurraren historia dira. Gu baino zaharragoak dira. Lurraren historia 24 ordutan neurtzen badugu gizakia 12ak eman baino hiru segundo lehenago agertu zen.

11.- Fosil eta mineralak ez ezik, zerbait gehiago topatu duzu?
Aztarna arkeologikoak aurkitu ditut: silex eta lan tresnak.

belexe gualxe

Iraileko bazkide sarituak

Ana Huizi Albarracin (Etxarri Aranatz)

Txane Senar Lizarraga (Lizarraga)

Javier Reparaz Lizarraga (Etxarri Aranatz)

Amagoia Aldasoro Artieda (Altsasu)

URRIKO SARIAK:

1-12 LITRO LACTURALE ESNE ERDIGAINGABETUA+2 SARRERA EKAINBERRI+ XOTA IKUSTEKO 2SARRERA

2-TOALLA BAT+AQUARIUM SARRERA+XOTA

IKUSTEKO 2SARRERA

3-KATXIPORRETA KAMIXETA+AQUARIUM SARRERA+ XOTA IKUSTEKO 2SARRERA

4- KATXIPORRETA KAMIXETA+AQUARIUM SARRERA+ XOTA IKUSTEKO 2SARRERA

2014ko egutegia zure taldearen argazkiarekin

Sakanako Igeriketa taldea

1988-2013 Gora 88ko kintxoak

2014

UTARRILA

OTSAILA

MARTXOA

APRILA

MAIATZA

EKAINA

UZTAILA

ABUZTUA

IRAILA

URRIA

ABUZTUA

ABENDUA

Hainbat aukera: poster, boltsiko, aldizkari egutegiak...

Guaixe KOMUNIKAZIOA

948 564 275

argi@guaixe.net

Koadrila, kirol talde, elkarte... ospakizun...

Eska iezaiguzu datorren urteko egutegia!